



Alkateek beren eskariak jakinari dizkiote Sanz lehendakariari

Miguel Sanz, Baztan, Bertizarana, Bortziriak eta Malerrekako 18 alkateekin bildu zen urriaren 22an Bertizko Jauregian. Gobernuako lau kontseilari ere etorri ziren bera laguntzeko; Toki Administrazioakoa, Rafael Gurrea; Industria-koa Ramón Bultó; Ingurugi-

Baztan, Bortziriak eta Malerrekako interes haundikoak diren gaiak izan zituzte mintzagai

rokoa, Yolanda Barcina eta Herrilanetakoa, Jose Ignacio Palacios. Guztiek aditu behar izan zituzten alkateen eskakizunak. **4-6**

3 Elkarriketa: **Pedro Mari Esarte, Elizondoko historialariarekin**

32 Kirola: **Nafarroako Aizkola Txapelketa Donezteben**

Azaroaren 15ean jokatuko da eskolako frontoian arratsaldeko 5etatik goiti.

18-21 Doneztebeko Feriak: **Azaroaren 15ean**

TTIPI-TTAPA honekin batera: **Etxetik Plazara**

3 Teleslangintza ikastaroetan izena emateko azken eguna azaroaren 11

REMOTE, emakumeen formakuntza programak deialdi berria egin du datorren urterako. Erne interesa duzuenak!



ORDOKI ALTZARIAK

estilo guzietako mobleak




Kalitatea prezio egokian


- *Modelo-berritzea dugula-eta, prezioak jautsi ditugu*
- *Logelak*
- *Egongelak*
- *Tresilloak, etab...*

- Jangelak, tresilloak, gazteendako mobleak, auxiliarrak...
- Paretako armarioak, zure logelarako egokiak eta neurrira eginak
- Kutxa, alasa, besaulki, etabarretan aukera zabala
- Moble zaharrak eta zaharberrituak

ERAKUSKETAK: Bittiria 30 eta Plaza Zaharra 26
SALMENTAK: Plaza Zaharra 27 • Tfnoa: 637034 - LESAKA



Auto ttikia, baina haundi baten segurtasuna eskaintzen dizuna.



**ZALAIN
MOTOR**

☎ 948.631157
☎ 908.778023
Ubelaldea
BERA

**TELLETXEA
TAILERRAK**

☎ 948.450667
Leitzako bidea
DONEZTEBE

DATUAK

❖ *Pedro M^a Esarte Elizondon sortu zen 1936ko uztailaren 15ean.*

❖ *Elizondoko alkate eta Balleko Etxean kontzejal izanda.*

❖ *Nafarroako historia, eta batez ere Baztangoa, aztertu du buru-belarri.*

❖ *Kolaborazio ugari idatzi ditu Egin, Deia eta Navarra Hoy egunkarietan Nafarroako gai historiko-juridikoetaz, mendi komunaletaz eta erakunde administrazioen inguruan.*

❖ *Sei libururen autore ere bada eta gehiagorako materiala ere ba omen du prestatuxea.*

TESTUA:

JOXEMANUEL IRIGOIEN

👉 **Pedro M^a ESARTE** *Elizondoko historialaria*

“Nire estudioak gustatu ez zaizkienean ez-ikusiarena egin dute batzuk”

NONDIK SORTU ZITAZIZUN HISTORIA AZTERTZEKO DUZUN INTERESA?

Beti izan dut interesa. Hala ere, Diario de Navarra leitzen nituenean Aizpun eta del Burgoen artikulua Nafarroa Espainian berdintasun kondiziotan sartu zela erraiten zutenak, orduan hasi nintzen interesatzen eta den-dena gezurra zela ikusi nuen. Berdintasun kondiziotan sartu ginela erraiten zuten bainan ez zegoen batere garbi nola ateratzen ahal ginen. Azken finean konkista izan zen, 17 urte iraun zuen konkista. Amaiur 1522an errenditu zen, Hondarribia 1524an eta erreprezio bortitzaren ondotik, 1529an Baxenafarroa bereganatu ezin zuela ikusirik, Gaztelako erregea Frantziakoarekin elkar-hartu eta Nafarroa erdibanatzeko akordioa egin zuten artio.

Hemezortzi urte dira Nafarroako Artxibategietara gaten naizela Nafarroako Konkistari buruzko paperak eta Baztan ukitzen duten afera guziak kontsultatzera. Gero Sunbillako Olak eta Lesakako zenbait gauza ere fotokopiatu eta etxera ekarri ditut denbora honetan.

ZUK ZURE ESTUDIOAK EZAGUTZERA EMAN ON-

► *“Hemezortzi urte baditut posible dudan goiz guzitan joaten naizela Nafarroako Artxibategietara eta Nafarroako Konkista eta Baztango afera guziak kontsultatzera”*



Nafarroako eta Baztango historia aztertzea da bere egiazko irrika

DOTIK, NOLA ERREAKZIONATU ZUTEN HISTORIA OFIZIALAREN ZALE DIRENAK?

Ez-ikusiarena eginez, nik idatzitako guziei ez zieten kasurik ere egin. Diario de Navarra ez didate sekulan artikulua bat bera ere argitaratu. Gauzak ongi lotuak dituzte ageri denez.


MENDI KOMUNALETAZ ERE ESTUDIO AUNITZ EGINAK DITUZU...

Bai, hala da. Mendien jabetza argitzeko estudioak egin nituen Eugi, Baztan eta bertze herriandako eta aholkularitza historikoa egitea eskatu zidaten. ‘Quinto Real’ izena bera, joan den mendeko izena da, lehendik beti Aldude izena izan baitu mendi horrek. Izenen kontuekin ere baditut gauza dexente bilduak, paperetan lehen erabiltzen ziren izenak eta

orai erabiltzen direnen artean diferentzia dexente baitago.

HISTORIALARI GISA FORMAKUNTZA BEREZITUA EZ IZANAREN FALTA SOMATU DUZU?

Behar bada XVI. mendeko historiari hobeki jabetzeko bai, bainan tira... formakuntza arian-ariz hartu dut, arituz ikasi egiten baita. Gainerakoan, autodidakta naiz. Azken finean, mendien auzia argitzeko ez dakit zenbateraino lagunduko zidan historialari tituluak.



Baztan, Bertizarana, Bortz eta Malerrekako 18 alkate bildu ziren Nafarroako Gobernuko agintariak. Gai ugari zuten solasteko; errepideak, zaborrak, industrialdeak, mendiak, CSIren pribatizazioa... Bilera ondotik, alkatatzuk 'positibotzat' baloratu zuten gobernu berriarekin duten lehen kontaktua eta bertze batzuk 'konkrezio gaitu' somatu dute Sanzek eta lau kontseilariak errandakoan Denborak erakutsiko du.

Sanz lehendakaria eta lau kontseilari alkateekin bildu ziren

Nafarroako Lehendakaria, Miguel Sanz, Baztan, Bertizarana, Bortziriak eta Malerrekako 18 alkateekin bildu zen urriaren 22an Bertizko Jauregian. Gobernuko lau kontseilari ere etorri ziren bera laguntzeko; Toki Administrazioakoa, Rafael Gurrea; Industriakoa, Ramon Bulto; Ingurugiroakoa, Yolanda Barcina eta Herrilantakoa, Jose Ignacio Palacios. Guztiek aditu behar izan zituzten zonako alkateen eskakizun eta arrenkurak.

Solasteko gai ugari zituzten mahai gainean; Belate-tik Irun eta Dantxarinea aldeko errepideen maldatzea, zabor eta hondakinen tratamendua, Lesakako Industrialdearen martxa, Hirurteko Planean

Nafarroako Gobernuak emanen dituen dirulaguntzak, CSI lantegiaren pribatizazioak sortu dituen kezka eta zalantzak, mendiak, turismoa... Ageri denez, gai guztiak interes eta garrantzia handikoak dira. Eta bilera egin ondotik, balorazioak egiteko tenorea etorri da. Miguel Sanzek erran zuenez, «gisa honetako bilerak Administrazioa herrietara

TESTUA ETA ARGAZKIAK:
JOXEMANUEL IRIGOIEN



hurbiltzeko baliagarriak dira, eta bidenabar, dauden kezka ezagutzeko».

Alkateen balorazio gehienak positiboak

Elgorriagako alkate eta Nafarroako Gobernuaren aitzinean zonako alkateen ordezkaria den Jose Miguel Galarregik erran digunez, «holako bilerak beti dira positiboak, baina gero, hitzen gibelatik egitan zer egiten den ikusi behar da eta segimendua egin. Gauzarik ederrena, halere, alkateak elkartzea da. Hori printzipala da». Jose Luis Etxegarai, Lesakako alkatearen zat ordea, «azken urteotan izan ditugun bilera guzietatik positiboena» izan da Sanzen gobernuarekin izandakoa. Manuel Iriarte, Berako alkatea ere, iduri berekoa da bilera baloratzerakoan. «Zaborrak, industria, turismoa eta mendien arazoei buruz egin dituzten planteamenduak arras onak izan dire, sentidu haundikoak». Miguel M^a Irigoien, Etxalarko alkateak bertze gisara pentsatzen du. «Hitzak bai, baina hortik aparte, ez nuen inolako konkreziorik ikusi solastu zuten gai bakar batean ere. Solastu bai baina zehaztasun haundirik gabe». Iturengo alkateak, Josetxo Iparragirrek, bisitaldia orokorrean positiboki baloratu arren, «kontseilari berriak nahiko berde» ikusi ditu zenbait afezretan. Nolanahi ere, «borondatea erakutsi zuten eta bide batzuk ideki dira hurrengo bi urteotarako». ■

BILERAN AZTERTUTAKO GAI NAGUSIENAK

Errepide moldatzeak

Eguberritarako proposamena ekarriko omen du Gobernuak

Belateko obra akitu eta gero zer? Jose Ignacio Palacios, Herrilan Departamentuko kontseilaria, bi hilabeteko epean estudio bat presentatzeko hitza eman zuen. Ekarriko duen estudioan Mugairitik Behobia eta Mugairitik Dantxarinearako errepideak moldatzeko alternatiba teknikoak agertuko omen dira, eta hoiak eskutan dituela, bertze bilera batera deituak izanen dira zonako alkateak. Gogoratu behar da alkateek behin eta berriz eskatua dutela Lesaka-Behobia bide-zatia lehenbailehen moldatzeko.

Industrialdeak

Zonako industrialde nagusia Alkaiagan, herriz herrikoak arras baztertu gabe

Alkaiagako Industrialdearen obra 1997an bukatuko dute eta Gobernuak bere esku hartuko du bere promozioa. Denetara 181.000 m²ko eremua hartzen du, eta metro koadroa zenbatetan salduko den ez da ofizialki ezagutzera eman. Herrietan antolatu ahal diren Industrialdeei ez zaie bidea moztuko, baina dirulaguntzak, eskakizun finkoen gainean emanen dira soilik.

Hirurteko Planak

Eskatua den baino diru gutiago banatuko da obrak egiteko

Nafarroa osoko udalen artean 50.000 milioi Pta.ko eskaera egin zioten Gobernuari, eta honek 14.500 bakarrik banatuko ditu denen artean, eta aparte, premia haundiko kasuetarako, diru zerbait ere gordeko du. Alkateek, ordea, gure herriak ttikiak izanta ere, dermio zabalak dituztela arazoindu zioten Sanzi, eta honek zera hori kontuan hartuko zuela hitzeman zien aparte gordetako diru hori banatzerakoan. Edozein gisatara, ez du ematen hurrengo hiru urteetan baserriko bideak moldatzeko diru aunitzik hartuko denik Gobernutik.

Mendiak

Ingurugiroa eta produkzioa

Yolanda Barcina, Ingurugiro Departamenduko kontseilariak erran zuenez, Bortzirak '5b helburua' eremutik kanpo gelditu bada ere, tratamendu berezitua ematea aztertzen ari dira, jakin baitakite «mendiak ez direla bakarrik polita egiteko, herri ttikiendako diru-iturri ere badirela».

Zaborrak

Karkar-era eraman

Oronoz-Mugairi inguruan Zaborren Transferentzia Zentrua egin, eta hor trinkotutako zaborra kamioietan Karkar-era eramatea proposatu zuen Sanzek. Gobernuak prest dago Transferentzia Zentrua egiteak balio duena oso-osorik ordaintzeko, eta baita Karkar-era garraiatzeak eramanen duen dirutzaren erdia ere. Kontuan hartu behar da Baztango eta Malerrekako zabor-erregai-luak egoera kaotikoan daudela azken urteotan, eta horregatik, zaborra Iruñerriko Mankomunitatera eramateko eskaera egin zutela hemengo udalek uda hasieran. Duela hilabete inguru, ordea, Iruñerriko Mankomunitadeak ezezkoa eman zion udalek egindako eskaerari. Orain Karkar-era eramaten saiatuko dira.

CSInen pribatizazioa

Zonako lantegirik nagusia salgai

'CSI Transformados' (lehen 'Laminaciones de Lesaka' izenekoa) salgai dago. Ez pentsa, ordea, CSI ekonomikoki gaizki dabilen lantegia denik, «diru-irabaziak ematen ari baita momentu hauetan». Hortaz, estatutaren menpe dagoen lantegi hau salgai jartzeak kezka sortu du bazterretan. Baztan-Bidasoan hamar langileetatik zortzi CSIn dago enplegatua. Gauzak horrela, alkateek zera eskatu diote Gobernuari: «ez dezala inork fabrika erosi gero ixteko edo lanpostuak murrizteko». Ramón Bultó, Industria kontseilariak hitzeman zuen kasu berezia eginen zuela hori ez gertatzeko. Dena den ez da ezagutzen lantegia osorik salduko den edo bakarrik zati bat. Edozein kasutan argi dago zonako ekonomiaren funtsa hortxe dagoela, baita industria berriak hemen jartzea nahi baldin bada ere.

Turismoa

Bultzatzeko apostua

Bertzen Udako Unibertsitatea jartzeko eta Elgorriagako Bainuetxea laguntzeko prest dago Sanz, «turismoa indartzeko balioko baitute».

LEGE GORDAILUA: NA-1324/85
FRANKEO ITUNDUA: 34/79
TIRADA: 6.300 ALE

Argitaratzailea: ttipi-ttapa
Herriko Etxeko Plaza, 1
31780 BERA
Tfnoa: 63 11 88
Faxa: 63 12 91
Internet:
<http://www.encomix.es/ttipi-ttapa>
e-mail:
ttipi@encomix.es
e-mail:
ttipi@mail.sendanet.es

zuzendaria: Joxemanuel Iri-
oi. **Publizitatea:** Miren Kar-
nele Tolosa. **Erredakzioa:** Aitor
Arozena, Joxemanuel Irigoien.
Administrazioa: Amaia Goia.
Erredakzio taldea: Pello Ape-
zetxea, Juainas Paul, Kristina Bo-
n, Bittori Telletxea. **Berri-
maileak:** Joseba Azpiroz, Este-
an Arozena, Juana Mari Saizar,
Ainhoa Mutuberria, Iban Isasi,
Xema Aldabe, Patxi Otxandore-
a, Ixabel Maia, Josune Etxe-
este, Pablo Mendiburu, Joseba
Arabide, Alizia Olaizola, Mar-
tari Etxenike, Koro Irazoki, Mi-
kel Gerendiain, Jacqueline, Eli-
sabet Iturria, Garbiñe Maiz, Os-
kar Txoperena, Pello Apezetxea,
Aitor Arozena, Kristina Boan.
kolaboratzaileak: EHNE Nafa-
roa, Mikel Bezunartea, Joxe Ja-
ber Etxeberria...

primategia: Graficas Ona.
ttipi-ttapa ez du bere gain har-
rean derrigorrez, aldizkarian adie-
zitako erranen eta eritzien eran-
kuzunik.

irakunde Laguntzaileak: Be-
nito, Leitza, Goizueta, Areso, Baz-
tan, Urdazubi, Zugarramurdi eta
Garaio udalak, Bortzirietako Eus-
kara Mankomunitatea, Malerre-
kako Zerbitzu Mankomunitatea,
Zugarramurdiko Akelarre Elkar-
lana...



Aldizkari honek Nafarroako
Gobernuaren laguntza jaso du

GAURKOTASUNeko GAIA

Sanzekin izandako bileraren balorazioak

Azken urteotan izan ditugun bilera guzietatik hoberena



Jose Luis ETXEGARAI
Lesakako alkatea (PNV)

Orokorrean, in-
presio ona ateri-
nuen bileratik
Planteamendu

sendoak egin zituzten. Ageri zen hemengo arazoak ezagutzen zizutela eta ez zirela solasean ari gauzen berri jakin gabe. Azken urteotan Nafarroako Gobernu-koekin izan ditugun bilera guzietatik serio eta hoberenskuena izan dela iduritu zait. Yolanda Barcina bera, Ingurugiro Departamenduko kontseilaria, planteamendu serioak eginez agertu zen. Bortziririak '5b'tik kanpo badago ere, mendirako dirulaguntza bereziak emateko prest dago gobernua. Alkaiagako Industrialdeari ere itxura ona ikusten zaio. Metro kuadroa prezio onean ateriko omen dute saltzera, eta horrekin batera, Lesaka-Behobia karreterari soluzioa bilatzeko konpromisoa hartu dute. CSIren pribatizazioa ere atentzio haundiarekin segituko omen du Bultó kontseilariak. Nire idurian balorazio positiboa eginen nuke. Momentuz intentsioak ikusi ditugu, hementik aitzinera intentsio hoiek duten efektivitatea ikusiko dugu. Bertzenaz, hagitz abudo hor izanzen gaituzte berriz ere.

Mundu honetan behar dugu izan beti errealistak



Joseko IPARRAGIRRE
Iturenko alkatea (EA)

Positiboki balo-
ratzen dut, ezin
baita izan bertze
manera batera.

Politikoak, leku batera joaten garenean saiatzen gara beti ez defraudatzea hasiera batetik. Mundu honetan behar dugu izan beti errealistak alde guzitarra, eta politikan oraindik gehiago, behar bada. Kontseilari berriak nahiko berde daude zenbait gauzetan. Karreteraren asuntorekin bertan, hementik bi hilabetetara kontesta fijoak ekartzeko gelditu dira, eta bertze bilera bat egiteko gauza horren gainean. Administrazio kontuan ere esplikatu zuten pixka bat zertan dauden Plan Nagusiak eta gero herri bakoitzari ze obra priorizatu duten jakiteko loteria-edo espetu beharko dugu. Kontua da duten diruarekin eskaeren hirutik bata kubrituko dutela. Basura asuntuan, zonarako 'egoista' xamarra bada ere, soluzio errealista da Karkar-era eramatea. Gero gainera, garraioaren erdia abonatuak digute Gobernutik. Edozein gisatar, borondatea bederen erakutsi ziguten eta bide batzuk ideki dira hurrengo bi urteotarako.

Planteamendu zentzudunak egin zituzten



Manuel IRIARTE
Berako alkatea

Hasiera-hasiera-
tik zentzuzko
planteamenduak
egin zituzten. He-

men eskuartean genituen arazoak estudiantuta ekarri zituzten. Hementik aitzinera ikusi behar zertan gauzatuko diren. Otano tripartitoaren buru gisa etorri zen, eta bistan zen hartu zituzten konpromisoek arraslotuta zeukatela, batez ere hemengo alkateekin egin zituzten bileretan ikusten zen hori, konpromiso gehiegi zituela hartuak. Sanzeri bertze manera bat ikusten zaio. Basuran kontua ere nahiko estudiantuta eta presu-
puestatuta ekarri zuten. Industriarekin egin duten planteamendua arras ongi dago lehen-
go planteamendu murriztekin konparatuta. Turismoaren afe-
ran planteamendu argia egin zuten. Karreterarekin berdin. Mendi-
diari buruzko planteamendua ere arras ona «ingurugiroa eta mendien produkzioa elkartuta ibili behar dute».
Hitz guttitan erresumitzeko, bileran interesa bazutela ikusi genuen eta ekipo konpaktoa osatu dutela. Hementik sei hila-
betetara ikusiko dugu zertan gauzatuko diren.

ARTEKARI TALDEA

ARTEKARITZA EKONOMIKO ETA LABORALA

LESAKA:

• Egunero, arratsaldeko 4,30etatik 8etara.
• Asteazkenetan, goizeko 10etatik aitzinera ere bai.
Non: MALDAERREKA S.L., Bittiria 6, Tfnoa: 63 74 04

IRUÑA:

• Bulego Zentralean: ARTEKARI, S.L., Tfnoa: 17 55 40
Non: Rioja Etorbidea 6, Atzekaldea Behean.

- ☞ Langile Autonomoak
- ☞ Nekazariak eta mendi langileak
- ☞ Nominak eta Aseguro Sozialak
- ☞ Lan-kontratatutarako laguntzak
- ☞ Enpresa berri ezberdinen sortzea
- ☞ Diru-laguntza ezberdinak
- ☞ Kontabilitateak
- ☞ IVA eta IRPF
- ☞ Errenta aitorenak
- ☞ Elbarritasun eta jubilazio espedienteak
- ☞ Bideragarritasun planak eta

IRAKURLEAK MINTZO

Zubietako alkateari:

Joan zen irailean Zubietako eskolako materialari buruz Iturengo eskola honetako partaideek zurekin izandako tirabirak direla eta denbora aurrera doan neurrian arazoa konpondu beharrean –zure borondate faltagatik– gezurra firri farra ari denez Zubietan zabaltzen, honako puntu hauek argitu nahi ditu eskola honek zubietar guziei:

– Zubietako eskola barrenean dagoen material guzia (goiko pisukoa) Nafar Gobernuko Hezkuntza eta Kultura Departamendukoa da eta ez udaletxekoa, nahiz eta zuk horrela esan.

– Iraileko lehenengo astean gure departamenduko buruek horrela esanda, Zubietako eskolako materialaren inbentarioa egitera joan ginen Iturengo eskolako zuzendari eta beste lau irakasleok alde zurretik, noski, zuri pertsonalki giltza eskatuz, hemengo langilea den Mikelek hain zuzen. Beraz ez dugu ezer izkutan egin.

– Materiala oso sakabana-tua eta hainbat aldiz tokiz mugitua zegoenez eta inbentarioa egitea momentuko lana ez zenez, gehiegi hondatu baino lehenago, material kaja batzuk (material fungible edo galkorra)

hartu genituen eta gure landidearen furgonetan sartu ondoren (kotxe ofizialik ez dugunez) Iturengo eskolara eraman genituen.

– Hau inoiz ez dugu ukatu, ez da beharrik ere, eta bai alkateari giltza ematerakoan bai gure inspektoreari eskolara iristean horrela esan genien: inbentarioa egitea luzea eta zaila da eta oraingoz material zerbit hartu dugu gure beharretarako. Geroago egingen dugu interesatzen zaigunaren eskaera ofiziala.

– Hemendik aurrerakoa alkatearen inbenzioko gezurrrak dira. Inork ez du ezer lapurtu eskolatik, ez bideoa esaten ari den bezala, ez furgoneta gainezka herritarren batek esan omen duen bezala. Nafar Gobernuko funtzionario garenon maisu-maixtra batzuk, Nafar Gobernuko eskolako material bat tokiz mogitu dute, Zubietatik Iturenera, momentuz eta dagokion jabeak besterik esan arte.

Guzti hau dela eta zera eskatzen diogu alkateari:

– Esan dituzun gezurrrak eta mehatxuak publikoki argitzea, hemengo langilea eta Zubietako biztanlea denaren difamazioa gelditu eta argi dezan.

ITURENGO ESKOLAKO ZUZENDARI
ETA LANGILEAK (5 SINADURA)

Aresoko arazoa zeharo aldrebesa

Egunak daramazkitez Aresoko zenbait guraso eta gazte azken hilabete honetan bizi dugun egoera larria salatzeko asmoz. Aurten 28 ume daude Aresoko eskolan, 3 andereño etortzen dira 5. eta 6. ikasturteak egiteko dauden ikasleentzako.

Orain arte Leitzara joan behar zuten hauek, baina lana asko egin ondoren, gurasoak Iruñan lortu zuten seme-alabak herrian bertan gelditzea. Zentzuzko eskaera bat da, gehiago kontutan hartzen badugu herri guztietan ume gabe gelditzen ari direla. Arazoa Areson ez da ume falta, Aresoko arazoa da Udala ez dela arduratzen umeen beharretaz eta gurasoei ez die-la inongo erreztasunik jar-tzen umeen egoera konpon-tzeko.

Udala prest dago herriko trinketea ixteko gela bat egiteko, edo eskolako patiotan pabiloi bat altxatzeko. Hori egitea ez zaie iruditzen dirua gastatzea denik. Ez du-te ulertzen hemendik urte batzuetara herrian ume gutxi balin badaude leku horiek alferrik egongo direla, eta orduan ezin izango ga-

rela damutu trinketea galdu dugulako. Gainera Iruñetik bidali duten aginduan garbi uzten da, eskolako ordutan eskolako zuzendari dela arduraduna eta behin hauek pasa ezker, udaletxeko eskutan dagoela giltza eta beraiek erantzun behar dutela han egiten diren gauzetaz. Gurasoak ez dira Udaletxearen laguntza-zen zai egon eta eskolak dauzkan bi etxeetatik bat "okupatu" dute. Lanean jarri dira bere umeek eskola beharrezko kondiziotan jaso dezaten, bi gela behar zituzten horretarako eta bi gela txukuntzen aritu dira. Iruñetik makina bat buelta eman dira baina Diputazioak pisua okupatzeko baime-na eman ondoren Udala ur-tzi du etxe horren ardura-dun. Alkateak ez du giltzarik eman nahi aitzakiak jar-rriz.


Guraso Elkarteak sortu zene-tik, Aresoko umeek zenbait ikastaro eta laguntza izan dituzte Udalaren partaide-tzarik gabe. Bi dantza talde daude, pilota eskola ere hor dago, iaz zaborren eta natura inguruko ikastaroa egin zuten, eta aurten jarraitze-ko 150.000 pta lortu dituz-te. Urtero eguberritan Bilbo-

ra joaten dira urtean zehar biltzen duten diruarekin. Horretarako zozketa egin behar dute, afari bat, lana. Gai-nera herriko beste elkarte-ekin Euskararen Eguna eta Kultur Eguna antolatzen du-te, udalaren dirulaguntza gutxiarekin. Askotan deus ez. Guraso Elkarteak eskatzen duen pisua eskoletako za-ti bat da. Eskolako zuzen-dariak leku falta dagoela iku-si du zenbait ikasgai ema-teko. Pisua horretarako nahi dute. Konponketak guraso ak egiten ari dira, oraindik Udalak ez du pezetarik eman, Alkateak esan zuen bezala. Baina herritarrek zentzuarekin jokatzu, trin-ketea desagertu ez dadin eta umeek egoera onean klaseak jaso ditzaten, elkar-tu egin dira eta bere asmo-ak aurrera atera dituzte. Al-kateak edo bere taldeko ki-deek nahi badute edo ez. Herriaren etorkizuna jokuan dago eta inork ez du etsiko zentzu osoarekin jokatzan ari dela ikusi arte. Bakoi-tzak badakizki bere egin be-harrak.

ARESOKO GURASO ELKARTEA



31. orrialdean karta gehiago



21ALBO
OSTATUA

LESKA



Tel.: 450 133
451 541

Faxa: 450 334

DONEZTEBE

APARAN, S. A.

BRIKOLAIA eta ZURAK

- Melamina taulak
- Taula hidrofugoak (uretik babesteko)
- Txapaz estalitako taulak
- Entzimerak
- Ate arruntak eta sukalde mogleendakoak
- Pintura eta bernizak
- Bainurako mogleak eta osagarriak
- KIT mogleak, esku-erremintak, etab...

 **Martin LEGARRA** *Elkarri-ko kidea*

Nafarroa bere etorkizunaren aurrean



Medikua, profesional ona bada, lehen lehen eritasuna sortu duen zergatia bilatuko

du, jakin baitaki diagnosi zuzena eginez gero bere lana arrakastatsua izanen dela.

Sufritzen ari dugun gatazkaren oinarria, gizarte-zati haundi baten iritziz, Euskal Herria eta Espainiaren arteko harremana erregulatuko duen marko juridikoaren ezarpenean dagoen kontsentsu faltan kokatzen da. Euskal Herrian ez zen Espainiako Konstituzioa onartu, Gernikako Estatutua gehien goz onartu zen EAEan bainan Nafarroan ez genuen aukerarik izan 'Ley del

Elkarrik manifestazioa deitu du azaroaren 9rako
'Nafarroa: oztoporik gabeko etorkizunaren alde. Nafar gizarteak erabakiko du' lelopean. Ez da inoren kontrako manifestazioa, elkarrizketaren aldeko saialdia baizik.

Amejoramiento' ari buruz iritzirik emateko.

Gatazkaren beste arrazoia, Euskadi eta Nafarroaren arteko harremanetan jarri iritzi dago. Arrazoaren planteamendu egozia egiten asmatu ez delako, edo politikoez arazoak baliatu direlako alderdi-interesak asetzeko, kontua da afera honek behar ez genuen gatazka sortu duela nafarren artean.

Gure agintariek «*Nafarroa nafartarrok nahi duguna izanen dela*» erran digute maiz, bainan ez zaigu inoiz eskatu ofizialki gai horri buruzko iritzirik, ezta etorkizunerako zer nahi dugun, edo bertze euskal probintziekin nolako harremanak nahi ditugun izan. Ez da serioa euren burua zuritu nahi izatea erranez nafarrok botua eman dugula hainbat hauteskundetan. Jakina da ez dela gauza bera partidu bati botua ematea eta partidu horrek dituen planteamendu guziekin bat egitea.

Nafartarrok adinez nagusiak garela pentsatzen dugu ELKARRIN, eta gu geu izan behar dugula Nafarroaren etorkizuna erabaki behar dugunok. Bide horretan dugun arazoetako bat zera da: hegoaldeko bertze hiruro probintziekin nolako harremanak izan nahi ditugun argitzea. Gai horretaz naturaltasunez hitzegin beharra dago, bai instituzioetan eta baita herri mailan. Izan ere azken 20 urteotan afera horren inguruan eman den

pauso bakarra, orain, bertan behera utzi du UPN-ren gobernuak.

Gauzak horrela, eta bertze hainbat ekimenen artean, ELKARRIK manifestazioa deitu du azaroaren 9rako '*Nafarroa: oztoporik gabeko etorkizunaren alde. Nafar gizarteak erabakiko du*' lelopean. Ez da inoren kontrako manifestazioa, elkarrizketaren aldeko saialdia baizik.

 **Marga ERDOZAIN** *Doneztebeko liburuzain izandakoa*

Kultura eta erabaki politikoak



Politiko ez garenok kulturaren inguruan politikoez haratutako erabakiak zaila egiten

zaizkigu ulertzea. Honek Fernando Alonsoren 'Tranbia zaharra' ren ipuina dakarkit burura (irakurtzera animatzen zaituztetet).

Doneztebeko liburutegiaz hitzegin behar dugu, hiru urte pasa eta, denok elkarri zoriondu behar diogula hemen dau den liburuetatik zer bait gehiago ikasi dugulako, ikertu dugu, kulturalki aintzindu egin dugu...

Erabaki politikoak ulertzen ez ditudala aipatzean, erran nahi dut liburutegi honekin hartutako erabakia ez dudala ulertzen. Eta horregatik azaldu nahi dut nire jarri.

Zerbitzuak martxan hiru urte daramazki eta langileak ezin zuen gehiago jarraitu. Segitzekotan udalak behin-betirako lanpostua konbokatatu egin behar zuen. Eta hasieran horrela erabaki zuen, eta horren ondorioz N.A.O. an hala publikatu zen. Baina gero, hasierako erabaki ez-ofizial batean iritziz aldatu zen «*arrazoi ekonomikoak direla eta, hau da, udal honek zor aunitz dituelako eta milioi bat ahorratzeko asmoz*» deialdia ez egitea erabaki zen. Hau horrela izanik, niri proposatu zidaten kontrato-

rik gabe eta paroa kobratuz segitzea, Udalak diferentzia ordainduz. Modu honetan zerbitzua udalarentzat hagitz merke aterako litzateke, 'lunch' bategen balio duena, adibidez. Zergatik ez dut erabaki hau ulertzen? Ba, langileen kontura zerbitzua errentagarria izatea nahi dutelako. Kultura ekono-

Zergatik ez dut erabaki

hau ulertzen?

Ba, langileen kontura

Doneztebeko Liburutegiaren zerbitzua errentagarria

izatea nahi dutelako.

Kultura

ekonomikoki errentagarria

izan ote daiteke?

mikoki errentagarria izan ote daiteke?

Egoera honi bertze irtenbide batzuk bilatu gabe, sakonki aztertu gabe aitzinera segitu da.

Bigarren arrazoi bat badute beuren erabakia justifikatzeko. Udalak Nafarroako Gobernuak bere gain liburutegia hau asuntzea nahi du. Aspaldian, erabat atzenda egon den txosten bat prestatu zen. Espero dezagun horrekin segitzea eta zerbait lortzea.

Bukatzeke, aipatu behar dut hagitz gustora aritu naizela eta lagundu duen guztiei eskerrak eman nahi dizkizuedala.

PRENTSATIK BILDUTAKOAK

11 GALDERA LABUR



Nafarkaria 96-X-25

«Arazoa ez gurasoen eta Udalaren arteko tirabira, Hezkuntza Sailari dagokio gure seme-alaben beharrak asetzea».

Trini MIRANDA
Aresoko Guraso Elkarteko lehendakaria
Nafarkaria 96-X-25

«Ez diegu 'maisuen etxea' emango. Beharrezkoa bada eraikin berria egiteko prest dago Udala»

Martin CABALLERO
Aresoko Alkatea
Nafarkaria 96-X-25


«Gure artean egon diren harremanak [Karrape irratia eta Leitzako Udala] ez dira normalak izan. Ez da girorik sortu, eta egoera gero eta okerragoa zen»

Mikel ILARREGI
Leitzako Alkatea
Nafarkaria 96-X-25

«Paso utzi behar zaie gazteei, baina etortzen direnean. Kanporaketak horretarako egiten dira»

Miel MINDEGIA
Aizkolaria
Egin 96-X-21

- ◆ **Zenbat urte dira tabernari bezala ari zarela?**
- ❖ Sei urte.
- ◆ **Zer musika mota entzun dezakegu zure ostatuan?**
- ❖ Denetarik, gehienbat euskal musika.
- ◆ **Eta zuk zein musika mota duzu gustoko?**
- ❖ Musika euskalduna.
- ◆ **Arantzan aste egunez ez duzue lan aunitzik izanen. Lanbide honetaz bizi zara edo bertze bat daukazu?**
- ❖ Momentuz lanbide bakarra daukat, bertze lan baten esperuan nago.
- ◆ **Herriko bestak edo inauteriak dituzu nahiago lan egiteko?**
- ❖ Inauteriak, giro herrikoa izaten delako.
- ◆ **Barraren atzean gehiago ligatzen da kanpoan baino?**
- ❖ Barran hagitz zaila da ligatzea.
- ◆ **Zeinekin moldatzen zara hobe, gazte mozkortu batekin edo adineko mozkortu batekin?**
- ❖ Ez batekin eta ez bertzearekin, mozkorrek ez dago ongi moldatzerik.
- ◆ **Barraren barrenean zer da hobe: umore txarra izatea edo lasai egotea?**
- ❖ Goia eta behea.
- ◆ **Bakailua, rocka edo trikitixa?**
- ❖ Denetarako momentuak daude.
- ◆ **Bertze zein lanbidetan arituko zinateke?**
- ❖ Elektro-mekanikan, hori ikasi dut eta.
- ◆ **Langabetu bati aholkatuko zenioke tabernari izatea?**
- ❖ Esperientzia polita da.



Inaxio FAGOAGA
Arantzako tabernaria



• DROGERIA • LURRINDEGIA • OPARIAK •

Barne edo kanpoalderako behar dituzun pintura plastikoak

Eztegara 19 • ☎ 63 02 40
BERA

Zure ingurua klase guzitako insektuz (xomorro, zinaurre, armiarma, kukuxu...) eta arratoi-xagutxo-zargarbitu nahi baduzu, deitu! Gu arduratuko gara horretaz.
Termita eta Polillen kontrako tratamendua



☎ 63 01 55
BERA

OKANE

HARATEGIA • URDAITEGIA

Kanttonberri 4, Tfnoa: 63 00 18 • BERA

GRUPO  **ZURICH**

ASEGURO OROKORRAK
Itzea, 4 — BERA — ☎ 63 07 63

Gripearen kontrako txerto kanpaina bete-betean

Azaroaren 30a arte luzatuko da

Irailaren 15ean hasi eta azaroaren 30a bitarte burutzen ari da Nafarroako osasun zentro eta kontsultetan aurtengo gripearen aurkako txertaketa kanpaina, Osasun Publikorako Institutuak egingandako planaren arabera.

Kanpaina honen helburu nagusia gripeak sortzen duen heriotz arriskua tikitzea da eta horretarako arrisku gehiena duten pertsona taldeak txertatuko dira.

65 URTEK GOITIKOAK ETA ARRISKU TALDEAK

Honela, 65 urtetik goitikoak, diabetea eta giltzurriko, bihotzeko eta arnas hartzeko arazoak dituztenak dira arriskua duten pertsonak dira arrisku taldekoak. Honetaz gain, izan dezaketen eraginatik hezkuntza eta osasun arloko profesionaleri ere txertoa hartzea gomendatzen zaie. Haurdun dauden

Arrisku haundiko gaixotasuna ez dirudien arren, batzuetan gripeak heriotza eragin dezake



ema-kumeeek ere arriskua dute, baina zenbait adituk txertatzea gomendatzen duten bitartean, berteak kontra daude. Kasu bakoitza aztertu beharko litzake lehenik eta edozein kasutan, txertoa emanez gero, haurdunaldiaren bigarren eta hirugarren hiruhilabetearen artean egin beharko litzateke, ez lehenago.

1994. urteari dago-kionez, 67.419 txerto eman ziren kanpainaren barrenean eta bertze 3.359 epez kanpo. Hau da, Nafarroako populazio osoaren %12,9ari eman zitzaion. 65 urtez goitikoaren artean berriz, kopuru hau populazioaren %60,6ra arte igo zen orain bi urte.

Komenio berriak lan baldintzak hobetuko ditu ELA eta LAB sindikatuen ustez

Nafarroako zuraren industriako ELA eta LAB sindikatuak gus-tura gelditu dira negoziazioan lortutako akordioarekin eta «*komenio berriak lan baldintzak eta baldintza sozialak hobetuko dituela*» adierazi dute.

Modu honetan, urriaren 14an hasita bede-

ratzi egunez luzatu zen greba bukatu zen. Nafarroan 2.000 lagunek lan egiten dute sektore honetan eta gehienek lana utzi zuten egun horietan. Eskualdeko zenbait lantegitan, ordea, ez zuten grebarik egin eta bertze batzuetan, gainera, arazoak izan zituzten nagusiek.



Hobekuntzak lortu dituzte zuraren langileek

Belateko maldan aitzintzea galera izan da marra urratuko da

Belateko maldan aitzintzea debekatzen duen marra dela eta, keja ugari hartu dituzte Nafarroako Gobernuan. Jose Ignacio Palacios, Herrilan kontseilariak, zonaldeko alkateekin

izandako bileran marra urratuko dutela hitzeman zuen, «*ezin baita halako obra haundia egin gero lau kilometrotan auto guziak pilotzeko, aurreratzea galera izan da marra urratuko da*».

Dia

**Autozerbitzua
deskontua**

**Hamabostero
ofertak**

Zatoz eta ikusi

Eztegara, 6 • ☎ 63 14 03 • BERA

ALZURI

- Sukalde tresneria eta opariak
- Landare eta loreak

Tel.: 63 03 70 • BERA

AHORRO-BERRI
janaridenda

Legia 4 • BERA

*Igande
goizetan
irekia*

Lurraren Egunak osasunez beterik ospatu zuten hamargarren edizioa

83 artisau eta 18 baserrietako produktuak ikusgai izan ziren

KRISTINA BOAN

Urriaren 27an burutu zen Lurraren Eguna arrakastatsua suertatu zen bere hamargarren urteurrenean. Eguraldi ederrak lagunduta hainbat jende ibili zen 83 artisauak ekarritako eskulanak ikusi eta erosten. Horien artean atentzio berezia sortu zuten Adrian Labadie eta Eduardo Konderen lanek. Herriko 18 baserrietako baratzetatik zuzenean ekarritako produktuen kalitatea ere goraiatu zuten jendeak. Baserritarrek oroi-garria jaso zuten antolatzaileen eskutik, hamargarren urtebetetze hau gogoratzeke.

Gasna lehiaketak ere hamargarren edizioa bete zuten eta kalitate handiko sei gazta aurkeztu ziren. Horien artean, Berako Iantzenekobordako Pedro Telletxeak eramane zuten lehen saria (20.000 pezeta eta oroi-garria). Bigarrena (12.000 pta) Arantzako Otsarrako Jon Larretxeak eskuratu zuten eta hirugarrena Etxalarko Isidro Ariztegik (7.000 pta). Irabazlearen gazta erdia 21.200 pezeta-tan saldu zen enkantean eta frontoian berehun lagunek bazkaldu zuten.



Lurraren Egunak eta Lizuniagako Igoerak bat egin zuten Altzate karrikan Arg.: Bixente Taberna

Jose Luis Telletxearen egoerak argitu gabe segitzen du

Jose Luis Telletxea, Lisboako gartzelean dagoen beratarren estradizioa eman edo ez Portugaleko Epaitegiaren esku dago. Prozedura luzea denez, be-

re abokatuek errekurtsioa presentatu diote epaitegiari bere askatasuna eskatuz, izan ere, zazpi hilabeteko gartzela zigorra bete bainu Joxeluisek.

Ur zikinen depuradora berria eginen da Zalainen

Ur-zikinen depuradora planta berria egingea onartu du Udalak, horretarako Europako komunitateko dirulaguntza izanen delarik, alkateak errandakoa-

ren arabera. Depuradora berriarekin etxeetako ur-zikinak tratatu dira, eta ez industriak sortzen ahal dituztenak. Lanak aurten hasiko dira Zalainen.

flash

◆ Berako intsumiso taldea

astero biltzen hasia da. Bilerak asteartean izaten dituzte, arratseko 8,30etan lamotenean.

◆ Bertso afaria Agerran

Larunbat honetan, azaroak 9, gaueko 9,30etatik aitzinera bertso afaria izanen da Agerra mendi taldearen egoitzan. Murua eta Lizaso arituko dira bertsoetan. Txartelak 3.500 pezetan salgai daude eta Antton Eskudorri erran behar zaio.

Partsonaia

Berako alkate, Foru diputatua eta Diputazioko kontseilari izandako Inato Irazoki urriaren 20an hil zen. Irazoki 1935ko apirilaren 25ean sortu zen. Mariatxo Ugartemendiarekin ezkondua, bortz seme-alaben aita zen. Lekarozko Kaputxinoetan Batxilerra egin ondok industria negozioetan hasi zen eta Funberako kontseilari eta kontseilari-delegatua izan zen.

1967an Berako alkate izendatu zuten. 1970ean, orduko Famili buruen Terzioko zinegotzi aukeratu zuten eta urtebete beranduago Iruñeko merindetik diputatua izatea lortu zuten. Franco hil zenean, orduko Foru instituzioa demokratizatzearen alde agertu hiru diputatuetatik bat bera izan zen. Diputatu bezala 1979ko apirila arte egon zen, urte hortan politika uztea deliberatu baitzuen.

Hileta elizkizunetara jende ezagunak etorri ziren Berara, bertzeak bertze, Miguel Sanz, Nafarroako Gobernuko lehendakaria. Herritar aunitzek ere bete zuten eliza, Inato Irazokiri azken agurra emateko.



Inato IRAZOKI

Errekalde ostatua

Ortziraletan, 10etan Mus Txapelketak

Tfnoa: 630259 - BERA



KIROLAK ZELA

Altzate 6, ☎ 63 05 98
BERA



Dantzari Ttiki Egunaren 9. edizioa ospatu zen urriaren 27an

Irain dantza taldeak antolatutako ekitaldian 300 dantzari aritu ziren

AITOR AROZENA

Irain eta Tantirumai-ru dantza taldeekin batera, Legazpia, Oñati, Lezo, Zarautz, Igantzi eta Donostiako Galizako Etxearen Triskele dantza taldeek parte hartu zuten urriaren 27an ospatutako Dantzari Ttiki Egunaren bederatzigarren edizioan. Irain dantza taldeak antolatutako ekitaldi honetan eguraldiak ere lagundu zuen. Goizetik dantzariak karrikaz karrika ibili ziren eta plazan eskaini zuten beraien saioa. Eraberean, Bortzirietako bertso eskolako gaztetxoek ere egunari buruzko zenbait bertso bota zituzten. Arratsaldean berriz, kalejiran joan ziren frontoian burutu zen bi ordu t'erdiko ekitaldi nagusira, talde guzieren partehartzearekin.

Egun guzian, Herriko Etxeko arkupetan Galizako produktuak probatu ahal izan ziren, Triskele taldekoen eki-



300 dantzarik kolorez eta dantzaz bete zituzten herriko karrikak Dantzari Ttiki Egunean

menari esker. Ramon Sanjurjo, Irain dantza taldeko irakaslearen erranetan, "egun honek kultura ezberdinak eza-gutzeko balio du. Gaztetxoenei bertze dantza batzuk ere badaudela erakutsi nahi diegu, ez bakarrik bere inguruan ikusten duten folklorea". Eguraldi bikaina izan zutelako kontuan hartuz "egun borobila" izan zela adierazi zuen.

Sastrin eta Belzaungo mendi aprobetxamendua

Sastrin eta Belzaun inguruetako mendi aprobetxamendurako (5.107 metro kubiko zur egingen duten pi-

nuak) hiru eskeintza aurkeztu ziren. Oiarzungo Leonet egurkarietiek egingen dute, 30.710.000 pezetatan.



Feriak gainean ditugu

Azaroaren 20 eta 21ean ospatuko dira Bortzirietako Feriak. Asteazkeneko merkatu egunean musika eta ajoarriero lehiaketa izanen dira azken urteotan bezala, baina egun nagusia ortzeguneko Feria eguna izanen da: azienda lehiaketa, bertsolariak, ehundaka saltzaile eta milaka erosle eta karrikako giro berezia izanen dira aurten ere.



Zine pelikula filmatuko da

Azaroan Daniel Kalparsoro zinegilearen 'A ciegas' pelikularako eszenak grabatuko dira Lesakan. Extra gisara aritzeko, zenbait herritarrek emana dute izena.

Kinto afaria

1955, 56 eta 57an jaiotakoek azaroaren 30ean ospatuko dute kinto afaria Koxkontan. Txartelak azaroaren 15a baino lehen eskuratu behar dira Koxkila eta Etxeberria ostatueta, 3.500 pezetaren truke.

Presoen aldeko

mozio berri bat onartu du ahobatez udalak azken bileran.

KATTU

ostatu - jatetxea
Plater konbinatuak eta menuak

627573 • LESACA



F. MARITORENA

Mendi eta lorategi garbiketak

Tfnoa.: (948) 63 11 99 - BERA



IRU BIDE
SRRETEGIA

Tfnoa: 637127
LESACA

ETXALAR

Jendea bildu eta ikastarorik ezin egin

Dirulaguntzak murriztu dira

PELLO APEZETXEA

Hori ere jakingarri izaten ahal da. EPA ize-neko denboran ikastaro aukera ugari izaten zen jendearentzat. Orain, Emakumearen Institutuaren eskutik heldu den honetan, aukera aunitz murriztu da,

nahiz eta emakumeak ez izan zerikusirik erabaki horretan. Egitan, sosaren zenbatekoa ttititu dute. Hara, bertze-la, gure herrian gertatu dena: ondarreko urteetan hogeit eta gehiago jenderekin egiten aritu den fruitu landareari buruzko ikastaroa, aurten

ere segitu nahi zutena, deusezean gelditu da. Baina begira, bertze aldetik, zenbait herritan gertatua: ikastaro bat egiteko dirua eman, eta jenderik bildu ez. Horretan geldituko da dirua? Edo jendea bildu den tokietara bidaliko dute?



Amaia, Beñat eta Manuel haurren bataioak haur eta guraso franko bilarazi zituen elizako atean, urriaren azken igandean, atautxien eskuzabala eskertzeraz

Lan publikoetako enpresen ausardia

Ausardia edo axo-lagabekeria, edo ez dakit nola deitzen ahal den. Bide seinaleak berritzen aritu direnek, edozein tokitan, publikoa nahiz partikularra izan, eta jabeari erran gabe, zulatu dute lurzorua. Eta ez badute seinalea batzuetan pa-

ratu, nagusiak utzi ez dielako izan da. Errepide edo karreteran lanak egiterakoan ere, abisurik eman gabe aritu dira zenbaitean, autogidarienezko sortzen duten arriskuaz oroitu gabe. Gobernuaren ardura dela erranen dute, behar bada.

Zaharretxerako dirulaguntza ukatu du Gobernuak

Larraburuko Zaharretxean urtearen ondarrean izan den defizita Nafarroako Gobernuak ordaindu du, urte batzuz. Oraingoan,

ordea, 1995eko gastua hornitzeko falta zena ez du eman. Ez emate hau gero eta gehiago entzuten da Gobernuko erabakietan.

Gimnasia hasi da Larraburuan

Larraburua Elkar-teak antolatzen duen gimnasira ere talde polita bildu da, hamabortz bat. Gehienak aintzi-

neko urtean arituak dira, nahiz eta pare bat berri ere baden. Patxi Txokarro dute irakasle, iaz bezala.

Antsolokuetan etxebizitza egiteko onespena

Lehen Gobernuak ukatu bazuen ere, orain,

errekurtsioa presentatu ondotik, erabakia aldatu egin du. Ondorioz, etxea egiteko bidea zabalik dago.

« **USOA** »
NEKAZARI KOOPERATIBA



Ganaduarentzat pentsurik egokiena
Tfnoa: 63 52 14

ETXALAR

SAROBE

okindegia 

SANDERS Pentsuak

Eztegara 41, Tfnoa: 63 08 99 - BERA

XATURETXEA



Tfnoa: 63 70 27 LESAKA

koxkonta



Ezkontza, bataio eta bileretarako leku egokia

Deitu erreserbak egiteko

Otsango auzoa, Tfnoak: 627503 / 627519 • **LESAKA**



ETXALARKO HERRIKO OSTATUA

© 635290

Udazkeneko Menu berezia

Aza pastela odolkitz beteaz pikillo eta bertako ilar-saltsan

.....
Onddo nahaskia

.....
Etxalarko usoa

.....
Orein eskalopinak masusta saltsan

.....
Gaztain pastela

.....
Galcibar-94 ardoa, ogia eta kafea

.....
2.900 Pta.

IGANTZI

Martxan dago Herriko Etxeko administrari lanpostua betetzeko prozesua

Zahar Etxeko mus eta partxis txapelketa, bertzalde, larunbatean hasi zen

OSKAR TXOPERENA

Udaletxean egindako azken plenoan Nieves Matxikotek orain arte bete duen lanpostua betetzeko pausak ematen hasitzea erabaki zuen. 43 urte eman ditu Nievesek lan horretan, eta heldu den urte hasieran –hiru hilabete behar dira guti goiti behiti langilea aukeratzeko– jakinen dugu zeinek egingen duen herrirako hain inportantea den lana.

Zahar Etxeko mus eta partxis lehiaketa

Joan den larunbatean zen hastekoa Zahar Etxeko mus eta partxis txapelketa. Aurten hermeretzi bikotek jokatuko dute musean, Vidal eta Agustin Bentakoei



Argazkia: Oskar TXOPERENA

Hitzaldi interesgarria izan zen joan den astean, Kultur Egunen barrenean, barazki, zuhaitz eta loreei buruz Jagoba Rekondok eskaini zuena. 35 lagun inguru bildu ziren parroko zentroan eta mugatu behar izan zen hitzaldiaren iraupena jendearen galderak bat bertzearen ondotik etorri zirelako. Bi orduetik goiti iraun zuen halere. Hurrengo eguneko SIDARI buruzko hitzaldia ere interesgarria izan zen. Jende gutxiago hurbildu zen honetara, gazteak gehien bat.

joan den urtean irabazitako txapela kentze-

ko. Partxisean berriz, hamaika bikote izanen

dira Manuela Sein eta M^a Jesus Iturbide txapel-

peldunei gauzak ahalik eta zailenak paratzeko.



EKAITZA kafetegia

GOSARIAK, BERENDUAK, TERRAZA

Plaza Berria, 13
 ☎ 948 - 62 75 47

LESAKA

Lagunekin elkartzeko toki egokia



ZALAIN

J A T E T X E A

EGUNEKO MENUA FTA KARTA

Zalain Auzoa
 ☎ 63 11 06

BERA

Boda eta banketeak ematen dira

IREKI BERRIA



Ostargi Optika

- Optiko optometrista
- Ikusmen azterketa orokorra
- Kontaktu lenteen adaptazioa
- Audifonoak
- Lantegietarako protekzio betaurrekoak...



Bidasoa karrika, 8 • BERA • ☎ 948 - 63 07 53

Ekitaldiz gainezka datorren Kultur Astea azaroaren 14tik 17ra ospatuko da

Igandean Baserritarren Eguna ospatuko da, bertako produktuak erakutsiz


ELIXABET ETA GARBIÑE

Ekitaldiz betetako kultur egitaraua izanen da datorren astean, urtero bezala Kultur Astea antolatu baitute, Udalak, Ekaitza elkarteak, Gazte Asanbladak eta Arantzako Euskara Batzordeak.

Ortzegunean, azaroak 14, arratseko 7,30etan hegaztien migrazioari buruzko solasaldia eskainiko du Miguel Mari Elosegik eskolako gimnasioan.

Ortziralean, arratseko 8etan Garik (Hertzainak taldeko kantari ohiak) emanen du hizaldia Ekaitza elkartean. 9ak aldera, berriz, afaria izanen da leku berean.

Larunbatari dagokionez, arratsaldeko 3etan zabor erreziklariari bu-



Joan den urtean bezalaxe, haurrek ederki pasatzeko aukera izanen dute larunbatean beraientzako prestatutako tailerrean

Artxiboa

ruzko tailerra izanen da haurrendako eskolako patioan Artelatz taldearen eskutik. Ondotikan haurrentzako berendua izanen da. 8etan mendiei buruzko hizaldia emanen du Jose

Ramon Agirrek "Zazpi lurraldeetako tontorrak" izenburupean.

BASERRITARREN EGUNA IGANDEAN

Igandean, azkenik, Baserritarren Eguna os-

patuko da. Goizeko 10etatik aitzinera bertako produktuen erakusketa zabalduko da frontoian eta honetarako baserritarren laguntza eskatu dute antolatuzaileek, "ahalik eta e-

txeko produktu gehien eraman dezaten ordu horretarako pilotalekura".

Eguerdian txalaparta aditu ahal izanen da eta 2etan herri bazkaria izanen da Ekaitza elkartean, Nafarroako txapeldun suertatu diren Jone Elgorriaga eta Izaro Ansa trikitilarien animazioarekin. Arratsaldeko 5etan 'Goaz' antzerki taldearen antzerki saioa izanen da eskolan Larrialdiak izenburuarekin.

Ekitaldi ugari eta gusto guztiak asetzeko modukoak, noski, aurtengo Kultur Asteak dakartzanak.

Bertzalde, aipatzekoa da azaroaren 17an ospatuko direla aurtengo bataioak ere, beraz, batzuentzat besta egun biribila izanen da.

GOYA
JOSTAILUAK
JANTZIAK
OPARIAK
ERREMITAK
Altzate, 5 Tfnoa: 63 00 83 BERA

ALBERTO

ZURE MODA DENDA MARKARIK ONENEKIN:

- Daniel Hechter
- Bonaventure
- Caramelo
- Replay
- Island
- Diesel
- Genfis
- Levi's
- Marithe François Girbaud
- Lacoste

GONBIDATU ETA GIZONGAIENDAKO TRAJEAK

Fuenterrabia 6, Tfnoa. 943-615815 IRUN

TXURULA
Albistur, 39-K • 627542 • LESAKA
bitxikeriak • opariak • enmarkazioak

EROSLE
LESAKA

Kalitate-prezio arteko orekarik hoberena

Frexkuena
zugandik hurbilago

Bittiria, 67 - © 637264

LANCHAS

- Parketak - Tarimak
- Kutxillatzea eta bernizatzeak
- Estaldura Orokorrak

Bera © 630735
Irun © (943) 622305

Sunbildar bat Nazioarteko mus txapelketaren finaletan

Periko Mariezkurrena Valladoliden ari da

IXABEL ETA JOSUNE

Periko Mariezkurrena Larralde sunbildarrik eta Leongo Fidel Marcosek bikotea osatzen dute musean eta Ameriketara bizi dira. Estatu Batuetako liga txapelketan parte hartu zuten eta Reno-Nevadako finalerako sailkatzea lortu zuten. Gainerako 35 bikoteei irabazi eta txapeldun gelditu ziren.

Txapeldun atera ondok, orain Valladolidera etorri dira jokatzera. Mexiko, Txile, Argentina, Australia, Estatu Batuak eta beste hainbat herrialdeko muslariek jokatu du hor.

Azaroaren 2an hasi

da eta 9an bukatuko da nazioarteko mus txapelketa hau, Valladolideko Gure Txokoa Euskal Zentroan jokatu den finalarekin.

ORAIN HAMAR URTE ERE JOKATU ZUEN TXAPELKETA

Orain dela hamar urte ere gisa honetara ibili omen zen Periko Mariezkurrena. Orduan ere bere eskualdeko txapeldun gelditu zen eta nazioarteko txapelketan parte hartu zuen, Las Vegasen. Orduan ere txapelketa bikaina jokatu zuen eta final laurdenetan galdu zuten.

Lerro hauen bidez zorrikerik onena desiatzen diogu bikoteari eta zorionak eman orain arte lortutakoarengatik. Animo bada!



Periko Mariezkurrena muslaria Nazioarteko mus txapelketan parte hartzen ari da Valladoliden

Txirrindula eta lera-zakur laisterketa burutuko dira

Azaroaren 30 eta abenduaren 1ean txirrindula eta lera zakur laisterketa burutuko da Sunbillako Nelizeko bazkideek antolatuta.

Bi egunetan ibilbide berbera izanen dute: Kanpinetik ateri, Itxegi eta Suspiroraino ailegatuko dira, ondoren Ximombordako errekarra jeitsi, handik Galtxatenbordara igo eta berriro kanpinera itzuliko dira.

Kategoria ezberdinetan banatuko dira partehartzaileak:

- Pulika: bizikleta eta zakur bat edo bi.
- B-1: Sei husky
- B-2: Sei samoyedo edo sei malamute edo sei groenlandiar.
- C-1: hiru edo lau husky.
- C-2: 4 zakur.

Bidal Ibarra izanen da lehiaketa honetan parte hartuko duen herritar bakara, Purina Astore taldearen izenean.



GAZTANDEGIA
Etxeko Ardi Gazta

LIZUN

Petxenekoborda
Tfnoa: 45 08 62
SUNBILLA

GA SASKAITZ
fontanería
calefacción

Empresa colaboradora de
REPJOL
AURANG

**Era guzietako instalazioak:
Etxekoak, industrialak...**

Santiago 55 • Tfnoa: 581171 • ELIZONDO

muñeca de Trapo



IRUN

Luis Mariano, 35
Tel.: (943) 62 52 55

FUNERARIA ZERBITZUAK
DONEZTEBEN



MALDAERREKA, S.L.

24 ordutako zerbitzua
Iruñea-Donostia-Irungo ospitaletatik edozein herritarra trasladoak
Tfnoa: 63 74 04 • LESAKA
Tfnoa: 45 04 75 • DONEZTEBE

ETXANDI TXOKO erretegia

Bazkari, afari eta gosariak

ITUREN
Tfnoa: 45 04 91

Zinema denboraldia beranduago hasiko da aurten

Hamalau pelikula bertzerik ez dira botako


TXEMA ALDABE

Abenduaren 6an hasiko dira aurten Doneztebeko zinemaren pelikula emanaldiak eta datorren urteko martxoaren 2an akituko dira. Beraz, hiru hilabetez izanen dira emanaldiak aurtengoan eta denetara hamalau pelikula bertzerik ez dira botako. Hain denboraldi laburra izateko bi dira arrazoi nagusiak: bata, azaroaren 18tik abenduaren 3ra bitartean Bidasoako Trenari buruzko erakusketa egonen dela zinemari eta bertzetik, pelikula emanaldiak direla eta, zineak sortzen duen diru ga-

lera, batez ere iaz izandakoa. Azken arrazoi hau dela eta, bere garaian pelikula gehiago ez emateko asmoak ere azaldu zituen udalak.

Pelikula emanaldiak larunbatetan gaueko 10,30etan eta igandetan arratsaldeko 5etan eta 8etan egin dira, hau da, iazko ordutegia izanen dute. Pelikulen berri hurrengo TTIPI-TTAPAKO aletan azalduko da. Pelikulak ikusteko prezioa orain artekoa bezala izanen da, 450 pezeta, alegia.

Halere, Nafarroako Aurrezki Kutxaren eskaintza dela eta, *Megaplanen* bidez franko merkeago izanen da.



Pili Urrutia liburutegiko langile berria

Lankidetzaz sozial izeneko kontrato motarekin hasi zen lanean azaroaren 3an Doneztebeko liburutegiko arduradun berria. Pili Urrutia iruritarra da. Lanpostu hau betetzeko ez dute inongo probarik egin.

Oroitarazi behar da ia 400 bazkide dituela Doneztebeko liburutegiak eta orain arteko funtzionamendua primerakoa izan duela. Espero dezagun aurrerantzean ere ongi segitzea eta honen inguruko afera guziki moldatzea.

Abenduaren 6an hasiko dira aurtengo zine emanaldiak

Erreka elkarteko eskubaloi taldeek nahiko ongi hasi dute aurtengo denboraldia

«*Erreka eskubaloi taldeak franko ongi hasi du aurtengo denboraldia, ni kontent nago, ekipo gaztea dugu eta berria*». Horrela solastu zaigu Patxiku Ganboa entrenatzaile

gaztea. Denboraldia irailaren 21ean hasi zen eta helduek orain arte sei partidu jokatu dituzte, horietatik hiru irabazi eta gainerakoak galdu. Jubenilek berriz, lau irabazi dituzte eta

bi galdu. Biak ere sailkapenaren hirugarren postuan daude.

Helduen mailan bi multzo edo talde daude Nafarroan. Erreka dagoen multzoan zortzi ekipo ari dira eta

bertzean sei ekipo. Hurrengo fasera multzo bakoitzeko bi talde pasatuko dira, horretarako txapelketa edo "liguilla" modura jokatuz.

Gauza bera jubentzen mailan. Kadete mailakoak, berriz, Nafarroako Jolas Kiroletan parte hartzen ari dira.

Hiru ekipo hauetaz gain, infantil mailako taldea ere sortzen saiatu dira, baina zenbaitzuk futbola aukeratu dute eta ez da jende aski ekipoa sortzeko. Futbola aukeratu dutenak Lesakako Beti Gazte taldearekin ari dira entrenatzen.



Maderas Zabala, S. A.

- ▷ BERTAKO ETA INPORTAZIOKO ZURAK • OIHAN ESLOTAKUNTZAK
- ▷ ZERRATEGIA • LEHORTEGIA (HARITZ ETA PAGO FRANTZIARREAN ESPEZIALDUAK) • RASTRELAK • HARITZEZKO KAPIRIUAK
- ▷ EGUR ETA ZUREZKO BARRAK GORTINENDAKO • KIDERRAK

Tfnua: (9)48 - 45 01 35
Faxa: (9)48 - 45 04 98
31740 DONEZTEBE

Ekitaldi interesgarri eta ikusgarriz betea dator a Doneztebeko Feria Eguneko egitaraua

Arratsaldean, Nafarroako aizkolarien txapela izanen da jokoan eskolako frontoian

Feria Eguneko protagonista nagusiak aziendak ziren garai batean eta datorren ortzirairean ere ikusteko aukera izanen da -erosketak eta tratuak, gero eta guttiago baitira-. Hauekin batera, ordea, bertzelako saltzaileek gero eta protagonismo haundiagoa hartu dute. Dagoeneko nahiko lan izaten dute Doneztebeko karrketan kokatzeko. Honek, behin baino gehiagotan herriko dendarien ezinegona sortu du, urte osoan beraien denda eta bizibidea herriaren dutenek ez baitira aisa laketzen egoera honenkin. Halere, jendeak atsegin du postuz postu kuxkuxeatzen ibiltzea, aunitzitan deus haundirik erosi gabe.

BERTSOLARIAK EGUERDIAN

Baina erosteaz eta



Nazabal, Mindegia, Larretxea, Senosiain eta Etxeberrriaren artean jokatu da Nafarroako aizkolarien txapelketa nagusiaren finala

dendaz denda ibiltzeaz aparte, bertze zenbait gauza egiteko aukera izanen du Doneztebera

egun horretan hurbiltzen denak. Goizean aspaldian ikusi gabeko lagunekin txikiteoan ibi-

liko da bat baino gehiago. Eguerdiko 12etan bertsolariak arituko dira Merkatuko Plazan.

Lerro hauek idazterakoan ez zegoen bertsolariaren izena jakiterik, baina bertsozaleen gus-

MARTIN HARATEGIA

BERTAKO ARETXIAK

Parrokia 1, ☎ 45 01 60 • DONEZTEBE

MAYLIN SPORT

KIROL ARTIKULUAK ETA GAZTE MODA

Parrokia 15, Tfnoa: 45 02 57 DONEZTEBE

ttipi-ttapa
Gida 96

Ez galdu sekulan begi bistatik.
Den-dena eskeintzen dizu!

TITI OSTATUA



Ongi pasa ferietan!



Amezti 7, ☎ 45 02 71 - DONEZTEBE

JUAN J. PIKABEA

ARROPA KONFEKZIOAK

GIZONENDAKO JOSTUNGINTZA

- BONAVENTURE bakeroak (Sei modelo ezberdin)
- Traje aukera

AMEZTIA 2/G, Tfnoa: 45 16 70
DONEZTEBE

RUIZ okindegia

Autozerbitzua

Karrika Nagusia 3
☎ 45 00 37
DONEZTEBE

engo

tokoa izanen dira, dui-kabe, honelako egun berxietan elkarri ziria sartzeko eta xebeberrietan aritzeko ederki probexten baitute.

Nafarroako aizkolari txapelketa

Ederki bazkaldu ondoren arratsaldea goxatzeko kirol ekitaldi inportantea izanen da aurten Donezteben aza-roaren 15ean. Arratsaldeko 5etatik aitzinera, eskolako frontoian Nafarroako aizkolarien txapelketa nagusia izanen da jokoan. Bertan arituko dira Etxarri-Aranazko Floren Nazabal, Mikel Mindegia zubietarra, Donato Larretxea arantzarra, Olagueko Antonio Senosiain eta Patxi Etxeberria sunbildarra.

Guztiekin hamarna enbor izanen dituzte mozteko: lau kanaerdikoak,



Argazkia 1987ko Feria egunean ateritakoa da. Bertso kantari hasteko puntuan ageri dira Eusebio eta Joxe Mari Fagoaga iturendarrak eta Bittor Elzagaien arraiioztarra. Gibelaldean, Mikel Mendizabal eta Sebastian Lizaso

60 ontzako bertze lau eta 72 ontzako bi.

Lan ederra izanen dute eta adituen ustez, Donato Larretxea izanen da aurtengo faboritoko nagusia, Euskal

Herriko txapelketan bigarrena izan ondotik. Bera ere animatua sumatu dugu eta proba normal joaki bada "nerretzat izanen da txapela" adierazi digu.

Mikel Mindegia ere hor izanen da. Adinean aitzinera doa baina ez du erretiroaz solastu nahi. Berak dioen bezala, "gazteei lekua utzi behar zaie, bai, bai-

na datozenean" eta berak lehia onean eskuratu du final honetarako txartela. Beraz, norgehiagoka gogorra izanen da txapel prezia-tuaren bila.

INES MARI
ILEAPAINDEGIA

Ameztiá 580491
DONEZTEBE

TINTEAK
ILE-KIXKURTZEAK
APAINTZEAK

Ilearendako produktu bereziak ditugu

Harieruz
LENTERIA

Parrokia 11
Tfnoa: 45 01 12
DONEZTEBE

ttipi-ttapa
Gida 96

Ez galdu sekulan begi bistatik.
Den-dena eskeintzen dizu!

MENDUR PENTSUAK

GALLINA BLANCA PURINA

Aparan Industrialdea, 2
Tfnoak: 45 18 45
63 40 17

ESKAINZA:
PURIMINE lau zakurengatik
1.000 Pta. ko deskuentoa

Etixeraino eramaten dugu. Larunbat arratsaldetan irekia

- Azienda ezberdinentzako pentsu berezia (behi, zaldi, ardi, zerri, untxi, oilo, zakur, katu, etab...)
- Bazka aztertzen dugu
- Elikadura egokirako errazio orekatuak
- Errape infekzioen analisi eta jarraipena (mamitia)
- Esplotazioen azterketa eta analisi indibiduala
- Ongarri mineralak
- Oilasko, oilo eta bertze hegaztiak eskuratzeko dizkizugu, alde zuretik enkargatuta
- Behi, ardi eta zerrien parasitoak hiltzeko pentsuak
- Kaiolak, toberak, askak...

Nerea
Oinetakoak

NEGU OINETAKOETAN
AUKERA ZABALA
(BOTAK, ZAPATAK...)

San Miguel 2
DONEZTEBE

REMOTE Formakuntza Planaren 1997rako deialdia luzatu du Cederna-Garalurek

Ikastaroa emakumeei zuzendua da

Datorren urteko urtarrilean hasiera eman zaio emakumeei zuzendutako Remote Formakuntza Planeko bigarren ikastaroari. Joan den ikasturtean bezala, hameka hilabete-ko iraupena izanen du, asteen bi egunez izanen dira klaseak eta Telezentroa ere ikasleen esku izanen da.

Izena emateko azken eguna azaroaren 11 izanen da. Egun horretatik aitzinera ez da bertze izen ematerik onartuko eta apuntatuak daudenek aukeraketa hasiko da. Aukeraketa honetan ikaslearen kurrikuluma, bere enpresa proiektua

eta test psikoteknikoaren emaitzak kontuak hartuko dira. Test hau Doneztebeko Juanseñean egingen da, oraindik zehaztu gabe dagoen egun batean.

Hiru elementu hauek kontuan hartuz lehen aukeraketa bat egingen da. Hauekin buruz-buruko elkarrizketa bat egin eta abendu bukaera alderako, taldea osatua egotea espero da.

Ikastaroa datorren urteko hilbeltzaren 8an hasiko da eta klaseak astelehen eta asteazkenean izanen dira Setatik 9etara eta hilabetean ortziral batean, ordutegi berean.



**EDERKI
TAILERRAK**

**Peugeot Agente Ofiziala
24 orduz grua zerbitzua**

Leitzarako bidean • ☎ 450525
DONEZTEBE



ERLOJU eta BITXIDENDA

Adi ezkongaiak!

Eraizunak erosteagatik ezkontz-erresak dohainik

Merkatu Karrika - ☎ 451519 - **DONEZTEBE**
Kanttonberri 8 - ☎ 630751 - **BERA**

ARozENA

Ostatua

*Ferietan ere egin
gaitzazu bisita*

Eguzki Eder 3
Tfnoa: 450443
DONEZTEBE

**Amezti Hostala
Jatetxea**



Ferietako MENU BEREZIA

Especialitatea euskal sukaldaritzan eta pintxoetan
Tfnoa: 450028 - **DONEZTEBE**

BAZAR 100

- Inportazio produktuak
- Opariak
- Etxerako ontziak
- Landare naturalak eta artifizialak

San Miguel auzoa • **DONEZTEBE**
Giltxaurdi 12 • **ELIZONDO**

**IRIGOIEN
ARRAINDEGIA**

*Arrain freskuak
eta produktu
izoztuak*

Feriatan ongi pasa!

Karrika Nagusia 2
☎ 450140
DONEZTEBE

Argitaratzailea: Bortzirietako Euskara Mankomunitatea, Arantzako Herriko Etxea, 31790 Arantza, Tfnoa: 634125
Montajea eta Maketazioa: ttipi-ttapa

Euskara Bortzirietako komertzioetara

Bortzirietako Euskara Mankomunitateak "Euskara Merkataritzara" egitasmoa martxan jarri zuen joan den hilabetean. Egitasmo honetan, bi bisitari hamabortz egunez gure herrietako komertzio guztiak bisitatu dituzte, hau da, 255 establezimendu.

ZER LORTU NAHI DUGU EGITASMO HONEKIN?

Batez ere, egitasmo honek bi helburu hauek ditu:

1. Gure herrietako establezimendu komertzialetan euskararen presentzia haunditzea, bai ahoz bai idatziz (karteletan, errotuloetan, fakturretan...).

2. Establezimenduetan lan egiten duten langileen euskara maila hobetzea.

Gainera, urrian egin den lehenbiziko bisitaldian komertzio bakoitzean euskararen egoera zein den jakin ahal izan dugu.

NOLA EGINDEN DUGU HORI?

Establezimendu komertzial guztiak bisitatuko ditugu, bi fasetan:

1. bisitaldia: Urrian egin genuen bisitaldi honetan hauxe egin genuen:

- establezimendu guzietan egitasmoa zen den azaldu genuen

- euskararen egoerari buruzko informazioa bildu



genuen

- euskarara itzuli nahi zituzten testuak bildu genituen

2. bisitaldia: Bisitaldi hau azaroan eginen dugu. Berriz ere, establezimendu komertzial guztiak bisitatuko ditugu. Hona hemen egin beharrekoa:

- Itzuli beharreko doku-

mentuak entregatuko ditugu

- Eskaintzak eginen ditugu (ikastaro bereziak eskaini, hitzarmena...)

ZER ESKAINTZEN DIOGU ESTABLEZIMENDU KOMERTZIALEI?

Bortzirietako Euskara Mankomunitateak hiru es-

kaintza luzatuko dizkie:


1. Itzulpen zerbitzua
 - Jendaurrean dituzten idatzi eta testuak itzultzea.

- Dohainik
 2. Euskara klaseak
 - Establezimenduetako langileentzako ikastaro bereziak.

3. Errotuloak euskaraz jartzeko laguntzak.

Jon ABRIL: «Jende gehiegi dago euskara bihotzean duena eta erdara mingainean»

Berako zenbait gaztek euskara herritarren artean bultzatzeko, eta gazteen artean bereziki, Erausian euskara taldea sortu dute. Bortzirietan dauden beharretaz jabeturik, inguruko gazte guztiei lan egiteko deia zabaldu eta euskaraz solastera animatzen dituzte.



Gutako anitzek ikasi arren eta euskara menperatuta ere, erdaraz solastean gehiago direla uste du. Jende gehiegi dago euskara bihotzean duena eta erdara mingainean. Gainera, gazteen artean errazagoa da ohiturak aldatzea, eta aldatu ezker, gainerako taldeengana ere erraztasun handiagoz ailegatu gara.

Zer egingo duzue helburuak betetzeko?

Kontzientziazio kanpaina batekin hasiko gara, propaganda, ikastaroak, hitzaldiak eta kultur ekintzak antolatuko ditugu. Denengana iritsi nahi dugu eta horregatik da garrantzitsua guztion iritzia ezagutzeta.

Erausian bi astetik behin biltzen da. Hurrengo bilera azaroaren 9an izanen da, arratsaldeko 3,30etan Gure Txokoa elkarrean. Bortzirietako gazteei zuzendutako bilera izanen da. Euskararen alde lan egin nahi dutenak etor daitezela.

Zein helbururekin sortu duzue Erausian gazteen Euskara taldea?

Euskarak dituen premiak jabeturik sortu dugu taldea. Zenbaki erreparatuz gero, euskara dakigunon kopurua ez da txarra, baina erabilera hagitz makal dago. %70a inguruk daki euskaraz Beran, baina erabili erdiak ere ez du egiten. Kale-erabilera bultzatu nahi dugu batik bat. Beran ezezik, Bortziriak osoan lan egin asmoz gabiltza.

Horretarako bertze herrietako jendearekin harremanetan jarri nahi genuke. **Solas jarduna bakarrik bultzatuko duzue?**

Ez, baina ardatz


nagusia izanen da. Eguneroko bizitzan egon behar du euskarak, etxean bezala lanean, bestetan edo erosketetan. Euskaraz solasteko ohitura hartzen badugu, gaine-

rako arloetan ere normalizatuko da egoera. **Zergatik gazteei zuzendua?**

Gazteen arteko zenbakiak larriagoak dira eta guregan dago etorkizuneko giltza.

«%70 inguruk daki euskaraz Beran, baina erabili erdiak ere ez du egiten. Kale-erabilera bultzatu nahi dugu batik bat»

«Euskaraz solasteko ohitura hartzen badugu, gainerako arloetan ere normalizatuko da egoera»



EUSKARA LANDUZ!!

22.

Zenbakia



Araitz-Betelu, Bortziriak, Basaburua, Goizueta- Arano, Imotz, Larraun,
Leitzaldea eta Malerrekako Euskaltegiak

Bota bertsoa!!



GAIA: ETXETIK PLAZARA irratsaioak

DOINUA: « Zuek horrela ikusi eta » (Andoni Egaña. 1993)

Duela hiru urte jaio zen
ume txiki polita.....
Xorroxin* eta **Gure Irratian***
heldu da berrizb.....
Aralar* eta **Karrapen*** ere
aditu bazenu gura*
hartu ezazuc.....
gurekin egin bilkura
gozatu etad.....
Ttipi ttiparen laguntzarekin
lehen bezalae.....
hara **ETXETIK PLAZARA** dauka
izena etaf.....

* Xorroxin - Baztango irratia

* Gure Irratia - Baionakoa

* Aralar Irratia - Larraungoa

* Karrape - Leitzakoa

* Gura = nahia

* Deitura = abizena, apelidoa

Egilea: Patxi Larretxea


Ikusten duzun bezala, bertso honi sei oin kendu dizkiogu. Hemen dituzu oinak, zure lana " oin " hauek bere lekuan sartzea izango da:

OHITURA - HURA - DEITURA* - GUSTURA - LILURA - MUNDURA

«ETXETIK PLAZARA» IRRATSAIOAK

XORROXIN irratian	—	FM 107	—	Asteazkenero 12:20an
ARALAR irratian	—	FM 107.8	—	Asteazkenero 11:45etan
GURE IRRATIAN	—	FM 106.6	—	Laster hasiko da.
KARRAPE irratian	—	FM 107.8	—	Urtarriletik aitzinera

Hezi zeure mingaina!!



Oraingoan, txoko honetako bigarren lezioarekin hasiko gara:

BERA ≠ BERDIN

A.— Zure etxea eta nirea **BERDINAK** dira.
(Etxe diferenteetan bizi dira eta itxuraz berdinak dira)

B.— Zure etxea eta nirea etxe **BERA** dira.
(Bi pertsonak etxe batean bizi dira)

A.—Zuk eta biok plater berdinetan jaten dugu (bi platerak igoalak dira).

B.—Zuk eta biok plater berean jaten dugu (plater batetik).

BERDIN — bi gauzaren artean antza dagoenean erabiltzen da.
BERA —bakarrik gauza bat denean erabiltzen da.

Orain aukera ezazu zein den formarik egokiena:



1.— Zuk eta nik lantegi **BEREAN** / **BERDINEAN** egiten dugu lan.
..... (ongi)

2.— Nire autoa eta zuena **BERDINAK** / **BERAK** dira.
..... (ongi)

3.— Etxe horiek altuera **BERDINA** / **BERA** dute.
..... (ongi)

4.— Galtza horiek eta hauek **BERDINAK** / **BERAK** dira.
..... (ongi)

5.—Horrek hiru aldiz jo du kanta **BERDINA** / **BERA**.
..... (ongi)



POEMA PRESOA

Lehenbiziko, bete itzazu koadro hauek.

1. Lagun ez dena.
2. Sorginen besta.
3. Lainoak dauden tokia.
4. Lesakako ihauteri pertsonaia.
5. Sagarrari azala kendu.
6. Bazter, izkin,...
7. Tarteka, noizbehinka,...
8. Txorien etxebizitza.
9. Ez bero.
10. Guk edo animaliek hartutako karga.

1	2	3	4	5					
6	7	E	8	9	R	10	E	A	
Z	E		11	12	13				
14	15	K	16	Z	A	17			
X	U	R		18	19	20			
Z	O		21	22					
A	L		23	24	25	A			
K	A		26	27					
	28	29	30	Z					
	31	32	M	A					

Orain, goiko numero bakoitzeko letra, hemengo numero berean jar ezazu. Kuadrotxo hauek betetzean JUAN KRUZ IGERABIDEREren poematxo bat agertuko zaizu.

1	2	3	4	5	6	7
---	---	---	---	---	---	---

8	9	10	11	12	13
---	---	----	----	----	----

14	15	16	17	18	19	20	21	22
----	----	----	----	----	----	----	----	----

23	24	25
----	----	----

A D I S K I D E A K ,

26	27	28	29	30	31	32
----	----	----	----	----	----	----

Euskara arropa berriarekin jazen!!



Ba al dakizu dirua txartelarekin atera nahi duzunean **EUSKARAZ** egiten ahal duzula? Begira zer erraxa den!:

1.— Txartela sartu eta zure numeroa markatu ondoren hauxe aterako zaizu:

— “ Indica las operaciones a realizar”

Orduan “ otras operaciones” dioen botoia zapaldu.

2.— Honen ondotik “ cambio de idioma” aukeratu eta azkenik, noski, **EUSKARA**.

Hemendik aurrera diru txartela erabiltzen duzun guzietan dena **EUSKARAZ** aterako zaizu.

SARIRAKO ARIKETA



Tira ba, bertze aldian dirua euskaraz ateratzen duzunean hitz berri batzuk aterako zaizkizu. Ariketa honen bidez, hitz horien esanahia ikasiko duzue. Horretarako, lotu itzazu marra batekin hitzak eta euren esanahiak.

1 * ADIERAZI

2 * ERAGIKETA

3 * KODE PERTSONALA

4 * KOPURUA edo ZENBATEKOA

5 * AGIRIA edo EGIASZTAGIRIA

6 * ERAGOZPENA

A * TRABA, MOLESTIA

B * KANTITATEA

C * OPERAZIOA

D * NUMERO PERTSONALA

E * ESAN edo ERRAN

F * OPERAZIOAREN erreziboa



«Etsaiak Iarrua zaurituko dik; adiskideak, bihotza»
POEMATXOA

6.— Zoko
 7.— Aldika
 8.— Kabi
 9.— Hotz
 10.— Zama

1.— Etsai
 2.— Akelarrea
 3.— Zerna
 4.— Zakuzar
 5.— Xuritu

EUSKARA SALDA

1.— BEREAN
 2.— BERRINAK
 3.— BERA
 4.— BERRINAK
 5.— BERA

HEZI ZEURE MINGAINA!!

a.— Hik irabazi HUN / HUNEN / ZUKEN / ZUNEN Lesakako ferietako saria.
 b.— Haserre al HAGO nirekin?
 c.— Ze, heldu HATZ nirekin edo ez?
 d.— Iaz Joan al HINTZEN Leitzako bestetara?

PETO PETOAN !!

a.— HURA
 b.— MUNDURA
 c.— OHITURA
 d.— LILURA
 e.— GUSTURA
 f.— DEITURA

BOTA BERTSOA !!

SOLUZIOAK

SARIRAKO ARIKETA



- 1 * ADIERAZI :esan edo erran.....
- 2 * ERAGIKETA:
- 3 * KODE PERTSONALA:.....
- 4 * KOPURUA edo ZENBATEKOA:
- 5 * AGIRIA edo EGIAZTAGIRIA:.....
- 6 * ERAGOZPENA:

OHARRA: Dakizuenez ariketa baten erantzunak besterik ez dituzue bidali behar (ale honetan 6. orrialdean duzue). Gainerako ariketen soluzioak beti azken aurreko orrialdean jarriko ditugu.

Bi pertsonendako afariaren irabazlea **Igantzik Maria Jesus Iribarren** izan da. **ZORIONAK!!**

Oraingo SARIA:
IKAko bi forro polar edo neguko txamarra

ALE HONETAKO SARIA ERAMAN NAHI BADUZU:

- 1.— Sarirako ariketa egin.
- 2.— Sarirako erantzunak jartzen duen lekura pasatu.
- 3.— Zure datuak atzean idatzi eta betiko lekuetara bidali:
 - * Leitzako Euskaltegia. Leitzako udaletxea (Leitzaldekoek)
 - * Bortzirietako Euskaltegia. Arretxea 22, Lesaka (Bortzirietakoek)
 - * Malerrekako Euskaltegia. Doneztebe (Malerrekakoek)
 - * Goizuetako Euskaltegia. Udaletxea. (Goizueta eta Aranokoek)
 - * Udaletxeko Bulegoa. Balleko etxea. Elizondo (Baztangoek)
 - * Larraungo udaletxean, Euskara zerbitzuan (Larraungoek)
 - * Araitzko udaletxean , MAIOPEn (Araitz-Betelukoek)
- 4.— Guk zuzenduko dugu eta hurrengo ETXETIK PLAZARAN erantzuna agertuko da.
- 5.— Saria, erantzunak bidali dituztenen artean banatuko da.
- 6.— Zozketan, azaroaren 25a baino lehen bidaltzen dutenek parte hartuko dute.

Sariaren zozketarako datuak

Izena _____ Abizenak _____
Adina _____
Helbidea: _____ Herria: _____
Telefonoa: _____



Aldizkari honek Nafarroako
Gobernuaren dirulaguntza jaso
du.



Aldizkari honek Europako
Komunitatearen Batzordearen
dirulaguntza jaso du.

Berriak

Aitzinera goazi

Gibelera goazi

Liburuak



Krantzan "Iruñeko omertzioetan euskara erabiltzeko ohitura ona hedatzen ari da. Edo itxura hori hartzen zaio behinpein ireki berria den Berako

Ostargi optika edo Lesakako Inaxio janaridendari begiratuz gero. Oraindik bide luzea gelditzen da, baina horrelako urratsak ematea ezinbertzekoa da.

ELECCIONES LOCALES 1995
1995ko TOKIKO HAUTESKUNDEAK

CONCEJALES
ZINEGOTZIAK

MUNICIPIO DE Etxalar'ko UDALA

Doy mi voto a la candidatura presentada por:
Aurkeztutako hautagai-zerrendari neure botua ematen diot:

Unión del Pueblo Navarro (UPN)

JOSE IGNACIO BERRUETA AGUIRRE (Independiente)
ANTONIO ECHEVERRIA ECHEVERRIA (Independiente)
JUAN MARIA OLAGARAY ECHARTTE (Independiente)
ISIDRO ARIZTEGUI ARIZTEGUI (Independiente)
JUANI MARTIN ANSALAS OZCARIZ (Independiente)
JAIME SANZBERRO ARRECHEA (Independiente)
TOMAS ARRIVILLAGA DAMBORIENA (Independiente)

Suplemento-Ortezkak
VENANCIO IPARAGUIRRE ZUBIETA (Independiente)
MODESTO CRUZ IRISARRI (Independiente)
LORENZO ZUBIETA MIQUELESTORENA (Independiente)

Etxalarako UPN udal taldeak informazioa erdaraz hutsez bidaltzen du etxeetara. Gaine-

ra, herriaren izena ere *Etxalar* jartzen du, nahiz eta legeak berak ETXALAR dela dioen aspalditik.



XIRRIXTA aldizkaria
4-8 urtekoentzat
eta **KOMETA**
aldizkaria 8 urtetik
goitikoentzat

Haur prentsan 45. alea argitaratu duen XIRRIXTA aldizkariak bide egokia ireki zuen. Bere lau urteko bidean, haur, guraso eta irakasleren errekonozimendua lortu du 4 eta 8 urte arteko haurrei zuzendutako aldizkari honek. Baina bere etorkizuna segurtatzeko, eskaintzen duen 4 urteko epea luzatzea ezinbestekoa da, argitaratzaileen ustez. «XIRRIXTA irakurtzen segitzeko haundiegia diren harpidedunei eta 8 urte bete duten haurrei aldizkari berri bat eskaini behar diegu, haien adinari egokitu».

XIRRIXTAren ildoan, KOMETArekin haurrak segituko du euskaraz irakurtzen eta bere adinari dagozkion gauza anitz ikasten jolasean. Bere gaitasunak baliatuko ditu zenbait lantxo (eskulana, errejeta...) inoren laguntzarik gabe egiteko. Bi hila-betetik behin argitaratuko da eta edukie dagokienez, ipuin luze bat, Brikolaia, Hitzak Jolas, Sukaldaritzeta eta Denborapasa sekzioak izanen ditu.

Herriko Plaza

Izen eta abizen hauek euskaldunak dira eta beraz, zergatik normaltzat jo? Zergatik izen-abizen euskaldunak erdaraz idatziak? Jende aunitzek bere izen-abizenak idazterakoan behar bezala, euskaraz, idazten ditu. Halere, paper ofizialean, karneteetan, pasaportean... erdaraz idazten dizkigute. Zoritxarrez, iduri du dokumentu ofizialean euskal izen-abizenak erdaraz idatziak ikusten ohitu garena. Halere, hau legalki

aldatzeko modua badago. Nahi izanez gero, zure euskal izen-abizenen grafia aldatzen ahal duzu. Hauxe da egin beharreko tramitazioa:

Patri ARBURUA

Bortziritako Euskara Teknikaria

«Iciar Echeverria, Idoya Celayeta,
Yon Michelena, Yosu Irazoqui...
Oraindik horrela zabilta?»



- NAN FOTOKOPIA
- ESKAERA
- HIRU DOKUMENTU IZEN-ABIZENAK EUSKARAZ IDATZITA
- INTERESATUAREN JAIOTZE AGIRI LITERALA (Herriko Etxean)
- ERROLDAREN ZIURTAGIRIA (Herriko Etxean)



Berriak

Ez gehiago ezta guttiago ere.

Euskara izatez, *munduko bertze edozein hizkuntza bezalakoa da*. Euskarak lagunartean, familiar, lantokian, komunikabideetan, irakaskuntzan, osasun-etxeetan... erabiltzeko gaitasuna dauka.

Nafarroako euskaldunek eta ez-euskaldun aunitzek behin baino gehiagotan erakutsi dugu etorkizuna euskaraz nahi dugula. Eta etorkizun hori ziurtatuko duten pausuak ematea denon lana da: administrazioarena eta herritarrena.

Baina...

• **BORONDATEA** falta da urtero-urtero Unibertsitate publikoak ikasketak euskaraz egin nahi dituzten ikasleen eskaerak betetzeko.

• **GOGOIA** falta da Na-

farroako hainbat bizilagun euskaraz ikasteko eskubiderik gabe uzten duen legea aldatzeko.

• **INTERESA** falta da osasun-etxeetan euskarak duen osasun eza gainditzeko.

• **ADOREA** falta da euskarari dagokion diru kopuruan urtetik urterako murrizteari aurre egiteko.

• **BIHOTZA** falta da

euskara ikasi nahi duten helduen ilusioa mantentzen duten erakundeetan lan txalogarria ez laguntzeko.

• **JUSTIZIA** falta da hauzitegietan epaiketak euskara hutsez izan nahi dituztenen eskubideak zakarrontzira botatzen direnean.

• **UHIN BERRIAK** falta dira euskaraz emititu nahi duten irratiak luze

baino lehen legeztatzeko.

• **BELARRIONAK** falta dira hainbat kultur elkarteren kantu eta *musika hot*-sa entzuteko.

Beraz, euskaraz bizi duen egoera, *ez da munduko bertze edozein hizkuntzak bizi duen egoera*. Hortxe dago aldea eta horregatik,

EMAN EUSKARARI BERA



Berako Erausian gazteen euskara taldeak badu logotipoa

Ezkerraldean ikusten duzuen logotipo hori izanen da hemendik aitzinera Berako Erausian gazteen euskara taldearen ikurra.

32 lan aurkeztu ziren eta horien artean Eloy Lopez lesakarrarena izan zen aukeratua eta 25.000 peze-

tako lehen saria eskuratuko duena.

Epaimahaikideek adierazi dutenez, lan gehienek kalitatea hagitz ona izan da eta azpimarratzekoa da lan aunitz ordenagailuen bitartez -eta ez eskuz- egingakoak zirela.

AHOLKURIK BEHAR IZANEZ GERO, DEITU

Etxe berriari izena nola idatzi, hilarrietako plakatxo bat nola moldatu edo komertzio, jabetze edo ostatu berriaren izena euskaraz nola idatzi ez badakizu, deitu

634125

Denbora batez arto irinik gabe egon gara

Zubietako errota hondatu zen

TXEMA ALDABE

Gaur egun marrukoa (taloa gaztarekin), artopila (taloa) edo labeko artoa jateko ohitura egun jakin batzuetara mugatu bada ere, zenbaitzuk segitzen dute maiz xamar jateko ohitura horrekin. Ez da erran beharrik ere, eta bertzela galdetu inguruko adintuei, janari honek zuen eta duen garrantzia. Bertzalde, janari garbia, kutsadurarik gabekoa eta indar haundikoa dela denok dakigu.

UDAKO EURIEK ZUBIETAKO ERROTA HONDATU ZUTEN

Pena handia da usadio hau galtzea eta horixe gertatzeko bidea hartu du azken hilabeteotan. Malerreka inguruan artoa xehetzen zuen errota ba-

karra denbora batez geldirik egon baita. Zubietako errotaz ari gara, noski. Udako euriak Ezkurra erreka urak haunditu eta errotara doan ur-kanalea edo bidea harriz eta zaborez bete baitzuen. Honetaz gain, errotan bertan kalteak sortu zituen. Dena den, azkenean moldatu egin dira arazoak eta berriz errota martxan hasi zen urriaren azken astean.

15 MILIOI PEZETAKO DIRULAGUNTZA EUROPATIK

Dirudienez, Europatik 15 milioi pezetako dirulaguntza onartu dute Zubietako errota moldatu eta txukuntzeko. Ea dirutza hori ongi aprobetxatzen den eta eta esku artean dugun altxor hori baztertua ez dugun uzten.



Malerreka aldean artoa xehetzen duen errota bakarra da Zubietakoa

IBAIONDO

Ostatua

Intzakardi • ☎ 450123 • DONEZTEBE

LAKANBRA MOTOAK

Udazkeneko eskaintza motozerra eta desbrozadoratan: Jonsered eta Husqvarna

Parrokia 18, ☎ 450082 - DONEZTEBE

IKASOFT

Konekta zaitez INTERNET-era eta ikasi gurekin

- @ Internetera konektatzeko zerbitzu publikoa
- @ Internet ikastaroak
- @ Informatika prestakuntza gela
- @ Informatika ekipoen salmenta
- @ Sareen instalazioa eta moldatzea
- @ Internet banatzailea
- @ WEB orrialdeen diseinu eta programazioa

Señor de Aranzate, 8 behea
IRUM
Faxa eta Tfnoa: (943) 633591

Baztan Bidasoalderako Zerbitzua

SAMPI ARAGON



DONEZTEBE • ☎ 45 03 54



ARIN

Era guztietako Aseguruak

Parrokia, 21 Tfnoa.-Faxa: 450266 DONEZTEBE

Gure zerbitzuak, zuendako

MALERREKA

Aurtizko San Martin bestak azaroaren 7tik 11ra ospatuko dira

Larunbatean Mindegia eta Olasagastiren arteko aizkol apostua

IBAN ISASI

Inguruko azken bestak ailegatu dira, udazkenaren erdialde honetan. Aurtizko bestak dira hauexek eta aurten goan, egitarau bete-betarekin datoz, gainera.

Ortizirala, 8:

Arratseko 8etan, beste hasiera emanen dien altxaferua botako da. 9etan paziko-zopak eta 12etatik aitzinera dantzaldia Gaubela taldearekin.

Larunbata, 9:

Goizeko 10etan Aurtizko txistulariekin kalejira. 11etan mus txapelketa. Arratsaldeko 5etan pilota partiduak, inguruko pilotariekin. Arratsaldez eta gauez dantzaldia izanen da Gaubela taldearekin.

Igandea 10:

10etan argi-soinuak txistulariekin. Eguer-



Joxe Angel akordeolariaren emanaldiak akabera emanen die aurtengo Aurtizko beste

diko letan aizkora apostua: Mikel Mindegia eta Olasagasti, Euskal Herriko txapelaren jabea, hain zuzen ere, buruz buru arituko dira. Arratsaldeko 5etan haur jokoak. Arratsalde eta gauez dantzaldia GAU-

BELA taldearekin.

Astelehena 11

San Martin Eguna:

Goizeko 10etan argi-soinuak. 11etan Meza Nagusia, San Martinen ohorez. 2etan herri bazkaria. Bazkal aitzinetik Zeberio eta Peña-

garikano bertsolarien ateraldiak aditu ahal izanen dira. Arratsalde eta gauez, Joxe Angel Akordeolariarekin dantzaldia.

Honenbertzez akabera emanen zaie aurtengo beste



◆ **Bidasoa-Berroarango mendietan**

oihan hobetzea egiteko 13.390.000 pezetako aurrekontua onartu du Nafarroako Gobernuak. Proiektuaren arabera 130 hektarea oihanberrituko dira, larrak eta sasiak garbituz eta plantak bakanduz –zuhaiak haundienak utziz–. Lan hauekin suterik ez gertatzea nahi da. Aurten hiru milioi gastatuko dira eta gainerakoa datorren urtean.

◆ **Beintza-Labaiengo**

Apeznekobordako bidearen moldatze eta hobetze lanak kontratatzeko lehia-keta zabaldu du udalak. Hasierako aurrekontua 2.168.926 pezetakoa da (BEZ barne). Proposamenak azaroaren 21eko eguerdia baino lehen aurkeztu behar dira Herriko Etxeko bulegoetan eta sobreak biharamonean zabalduko dira.

◆ **Labaiengo ostatua**

errentan hartzeko, proposamenak aurkezteko epea azaroaren 12ko eguerdia arte luzatuko da. Ostatua lau urterako emanen da eta hasierako prezioa 300.000 pezetakoa da urte bakoitzeko. Proposamenak sobre itxian presentatu behar dira Beintza-Lagaiengo Herriko Etxean.

STIHL
023




- Oparia:**
- Katearen tinkatze automatikoa
 - Ordezko kate bat (S/C)

STIHL
029



- Oparia:**
- ELASTOSTART sistema
 - Lanerako buzo bat
 - Ordezko kate bat (S/C)

STIHL
046



- Oparia:**
- Ordezko kate bat
 - Larruzko segurtasun botak (S/C)

Jose Luis SAN MIGUEL

STIHL Zerbitzu Ofiziala

- Bizikletak
- Motoak
- Nekazal Tresneria
- Salmenta eta konponketa

Feriak ederki pasatu!

© 45 07 11 • DONEZTEBE

MALERREKA

“Udazkeneko Jira-bira” programazioan, ikuskizunak Donamaria eta Urrotzen

Donamarian ‘Iruña Dantza Taldea’ eta Urrotzen ganbara-musika izanen dira

TTIPI-TTAPA

Urtero bezala, Nafarroako Gobernuak antolatzen duen ‘Udazkeneko Jira-bira’ kultur programaren ekitaldiak burutzen ari dira Malerreka zenebait herritan. Honela, urriaren 26an zine emanaldia izan zen Donamarian. ‘Maité’ pelikula izan zen ikusgai eta euskaldun eta kubatarren gorabeherekin irri ederrak bota zituzten.

Hemendik aitzinera ere izanen dira ekitaldiak. Azaroaren 23an, arratsaldeko 8etatik aitzinera, Donamariako frontoian bere emanaldia eskainiko du Iruña dantza taldeak. Azaroaren 24an, eguerdiko 1etan, berriz, Urrotzko elizan ganbara musika aditu ahal izanen da.



Donamariako jauregia moldatzen ari dira

Bianako Printzea erakundeak emandako dirulaguntzarekin Donamariako Jauregia moldatzen ari dira asteotan

Artxiboa

Gazteluko Herriko ostalua berriz idekia

Bi urtez itxia egon ondotik, berriz ere ideki da Gazteluko osta-

tua. Zarautzko Itziar Laburuk hartu du hamabi urteko.

Asteburuetan otorduak ematen ditu eta lehendik aipatuz gero, as-

te tartean ere bai. Ostaluko goiko aldean logelak badira eta ahal bezain abudo ostalua ere eskainiko da. Bertako telefonoa 450105 da.

Esther Mugerza Euskara Teknikari berriz ere

Esther Mugerza aukeratu dute Malerreka Mankomunitateko euskara teknikari lanposturako.

Hasiera batean bereratzeko lagunek izena eman bazuten ere, azkenean bi bertzerik ez ziren aurkeztu probara eta horien artean, nahiko aisa gailendu zen Esther. Kontuan hartu behar da lehenik ere euskara teknikaria izan dela Esther Mugerza Malerrekan.

Kontratua behin-behinekoa izanen da, mankomunitatearen deialdiak agertzen zenez, “Mallerrekako euskararen egoera normalizatu artekoa”.

APEZTEGIA

BURDINDEGIA



© 948 - 45 09 94

Elizagibela I • DONEZTEBE

ZALDUBI

Martin Lizasoain Adansa

Zaldubia Poligonoa • ☎ 580562
IRURITA - BAZTAN

Sukalde eta Bainu Mobleak

Egoki-ren banatzaile baimendua



GOIZUETA

Erritmo bizian ari dira eliza berritzen


22 milioi inguru kostako dira obrak

ESTEBAN AROZENA

Herritar guztiek egu-nero begi bistan dauka-ten bezala, erritmo ede-rréan doaz orain dela as-te batzuk hasitako eli-zaren berritze lanak. Oroitarazi, teilatua, kan-poko paretak, ezkilak eta erlojua direla kon-pondu beharrekoak.

Era honetako obre-tan gertatu ohi den be-zala, hasiera batean us-te zen baino aurrekon-tu haundiagoari aurre egin beharrean aurkitu da lan hauek zuzentze-ko eratu den herritarren batzordea. Esate bate-rako, teilatua 14 milioi kostako da, eta fatxa-dak beste 8 milioi.

Dena den, elizak ez dio esku hutsik ekin obra haundi honi, 10 milioi t'erdia pezeta aurreratua



Elizaren berritze lanak aurrera segitzen dute

Arg.: Miren Terese HUITZI

baitauzka bere kutxe-tan. Donatiboetatik, Bianako Printzea era-kundetik eta Iruñako Gotzaindegitik etorri di-ra kopuru hori osatu du-ten diruak.

Aurrekontua estal-

tzeko falta diren 11 mi-lioi t'erdia nondik edo handik lortu behar di-renez, diru biltze kan-paina bati hasiera eman dio lehen aipatutako ba-tzordeak. Horrela, etxé etxe banatu den orri ba-

ten bidez, obren infor-mazioarekin batera he-rritarren laguntza eko-nomikoa eskatzen da.

Udalak bere aldetik erabaki du dagoeneko elizari emango dion la-guntza, eta teilatuan be-

har diren egurrak ema-teaz gain ez omen dio obrari dagokion tasarik kobratuko. Erlojua kon-ponetzeko behar diren 500.000 pezetak ere Herriko Etxearen kon-tura joango dira.

ARESO

Elizako kalefakzioa martxan jarri dute

Alfabetatze ikastaroa hasiko da

JUANA M^a SAIZAR

Udaren erdi aldean elizaren kalefakzioa be-rria jartzen ari zirela esan genuen. Orain, eguraldia hoztu dela eta, martxan jartzen hasia da. Pozik dago jendea, instant batean eliza be-rotzen baitu. Kontseilu Pastoralak bildu zen kur-

tsuari hasiera emanez eta lan hauek ordain-tzeko diru gutxi zego-e-la ikusi zen. Herriko jen-deari borondatea eska-tzea erabaki zen, zorrak ordaintzeko. Kartak ba-natuko dira etxé etxe kontuak argituz.

Etxé etxeko zerbitzua

Bost urte dira etxé



Eliza moldatzeko borondatea eskatuko zaie herritarrei

etxeko zerbitzua mar-txan jarri zela zonalde-an, baina orain arte Areson ez da erabiltze-rik izan, eskaririk ez ze-goelako. Orain, orde-a, bi etxetan hasiak dira atentitzen.

Egin mus txapelketa

Antolatzaileek esan digutenez, Egin mus txapelketako irabazle-ak Joxepa Mugerza eta M^a Jesus Barandain izan ziren. Finalistak

Bittor Goikoetxea eta Txomin Etxarri.

Alfabetatze ikastaroa

Alfabetatze ikasta-roa hasiko da. Astean bi egunetan bi orduz ari-tuko dira.

Depuradoraren proiektuari onespina

Nafarroako Gober-nuko Toki Adminis-trazio Departamen-duak behin betiko onespina eman zion urriaren 14an herrian egin asmo den depu-radoraren proiektuari.

Juantxo Apezetxea pilotari afizionatu onena

Espainiako Federa-zioarentzat Juantxo Apezetxea izan zen iazko pilotari afizio-naturik onena, kirol honen espezialitate gu-ziak kontutan hartuta gainera. Urriaren 27an Lizarran jaso zuen Juantxok ongi mere-zitako sari haundi ho-ri. Ruben Beloki izan zen profesionalen artean onena.

Landako industrialdearen urbanizazio lanen bigarren fasea hasiko da


Ur-hornidura eta saneamendu zerbitzuak emanen zaizkie pabilioiei

JOSEBA AZPIROZ

Udalak Landako industrialdearen urbanizazioaren bigarren faseko lanak lehiaketa birtartez adjudikatu nahi ditu. Oinarrizko prezioa 47.611.286 pezetakoa da. Lan hauekin hamazazpi pabilioiei ur-hornidura eta saneamendu zerbitzuak emanen zaizkie, eta argia eta telefonoa jartzeko obra zibila ere egingen da. Gaur egun hamahiru enpresa dira poligono honetan pabilioiak eraikitzeke asmoa erakutsi dutenak.

Gipuzkoako muga itxiko da

Gipuzkoako Aldundiak bere lurretara igarotako azpiendak harritatu eta jabeen isunak jarriko zizkiela adierazi zuela eta, udalak Leitza eta Gipuzkoaren arteko muga ixtea erabaki zuen. Eskatutako dirulaguntza eskaeraren erantzuna ailegatu bitarte, udal langileak piketeak markatzen hasi dira.



Baserritarren Eguna

Urriaren 26 eta 27an baserriaren munduarekin lotutako hainbat ekitaldi burutu ziren Baserritarren Egunaren laugarren edizioan Argazkia: EGIN

Presoen aldeko ekimenak Udaletxean eta Sarrion

HB eta EAko zinegotziek euskal preso politikoen eta hauen senideen giza eskubideak errespetatu daitezkeen hurrengo gutxieneko neurriak errespetatzeko eskatu zuten: Euskal preso guztiak Euskal Herrira ekartzea; epaiketan ezarritako zigorraren hiru laurdenak

bete dituzten presoen berehalako askatasuna; gaixotasun sendaezinak dutenak berehalako askatasuna eta kartzela zigorrez gain sofritzen dituzten legez kanpoko bortxaketekin amaitzeko neurri zorrotzak hartzea. Batzarrean zeuden UILko bi zinegotziek ez zuten bozketan parte

hartu nahi izan, aurreko batean abstenitu izanagatik kartelen bidez salatuak izan zirelako. Bozketan parte hartze- ra legez behartuak zeudenez, abstenitu ziren.

Bestalde, Sarrion LABekoek astebukara bateko itxialdia egin zuten presoen eskubideen alde.



Aziendarik daukanak

Abelzantzaren Abestastuna Kontatze-ko orria (katastroa) Udaletxeko bulego- etan betetzea behar- turik dago, azaroaren 4tik 29a bitarte. Aziendak zein men- dietara bidali behar- dituzten ere adierazi beharko dute.

Larreak hobetzeko

eta ohian lanak egi- teko su-emate eska- erak abenduaren ba- ta baino lehen egin behar dira. Eskaerak udalaren bitartez egin behar dira eta erre- nahi den azalera eta larreak zein abel- zaintza karga duen azaldu behar da.

Nortasun Agiri Nazionalaren

bulegokoak azaroa- ren 14ean, osteguna, eta abenduaren 12an etorriko dira Leitza- ra, goizeko 9,30eta- tik 11,30etara.

Notarioa

ostiral honetan, aza- roak 8, etorriko da Leitza

GAZTELU ITURGINTZA

KALEFAKZIOA

Elgoien 32
Tfnoa: 51 00 86 • LEITZA



Betiko platerrez gain, bereziak ere eskaintzen dizkizugu
Eta ezkontzea pentsatu baduzu,
harrituko zaitugu!

Tel. 51 01 25 • Faxa: 61 09 65
LEITZAko Gaina

BEINTZAko OSTATUA
Tfnoa: 45 00 14
BEINTZA-LABAIEN

SALDIASko zerrategia

Eraikuntzarako estrukturak eta enbalajeak

Zubizarra, © 615108 eta 615044 • SALDIAS

ttipi-ttapa
Gida 96
Ez galdu sekulan begi bistatik.
Den-dena eskeintzen dizu!

Azaro Antimilitarista antolatu du Baztango Gazte Asanbladak

Larunbatero ekitaldiren bat izanen da

JOSEBA IGARABIDE

Urriaren 31n, zigor kode berria eta intsumisioari buruz emandako solasaldiarekin hasiera eman zitzaion Baztango Gazte Asanbladak antolatutako Azaro Antimilitaristari.

Hemendik aitzinera, azaroa bukatu arte, larunbatero izanen da ekitaldiren bat. Larunbat honetan, azaroak 9, bideo emanaldia izanen da arratseko 9etatik aitzinera Erratzuko Zubi Punta ostatuan. Aitzinetik, arratsaldeko 6etan, zozketen aurkako kartelak paratuko dira parkean.

Azaroaren 16an herri poteoa izanen da trikitilarien animazioarekin. Gaez herri afaria.

Azaroaren 23an, "Arma industria Euskal Herrian" izenburupean solasaldia izanen da arratsaldeko 8etan Iruritik zentroan.

Azaroaren 30ean, azkenik, gerraren aurkako pelikula baten emanaldia eskainiko da arratseko 8etatik aitzinera Elizondoko Lanbide Eskolan.

Ekitaldi hauekin ejerzitoaren aurkako eta intsumisioaren aldeko jarrera azaldu nahi du Baztango Gazte Asanbladak.



Erratzuko emakume taldea Arrikulunkarat

Erratzuko hemezortzi emakume Arrikulunkarat joan ziren orain berriki. Goizean goiz ateri eta egunpasa polita egin zuten.

Hirurteko Planerako inbertsioak

Hirurteko Toki azpiegitura planerako zenbait inbertsio proposatu dizkio Balleko Etxeak Nafarroako Gobernuari. Edateko ur-hornidurarekin lotuak daude guztiak: 14.679.806 pezeta Azkarate auzoko edateko ur-hornidura sarea eta depositoa egiteko, 10.918.379 pezeta Bozate auzoko edateko ur depositoa egiteko eta 27.820.698 pezeta Almandozko edateko ur-hornidura sarea berriketuko.

'Marmoles del Baztan'go LABek ELAren jarrera gaitzetsi du

Marmoles del Baztan enpresako LABek ELAk izandako jokerra salatu eta "jarrera usteltzat" jo du prentsarako idatzi baten bidez.

Marmoletako langileei aplikatzen zaien hitzarmena onartu ondok, enpresaren zuzendariari aurkeztu beharreko puntuak prestatzeko deitu omen zien hainbat aldi LABeko ordezkariak ELAko bie. Hauek erantzunik ematen ez zuten langile guziei zabalduak batzarra deitu zen urria-

ren 5erako, herrialdeko hitzarmenaz solastu, marmolak moztean ateratzen den hautsari soluzioa bilatu eta bertez gaiak lantzeko. LABen erranetan, ordea, "batzarraren bezperan ELAko ordezkariak nagusiengana joan ziren, batzarreko puntu bereberekin, langileekin inongo bilerarik egin gabe". Jokaera hau salatu du LABek, "urteetan bertzeek lortutakoa inor berak lortu balu bezala erabiltzea jarrera usteltzat" joz.

Portonasia

«Sinismena galdua daukate gaur eguneko gazteek»

Ehun urte bete zituen urriaren 22an Mugairin jaiotako Salome Aizpuru Goñik. Egun seinalatu horretan, Iruñeko bere etxera hurbildu ziren Oronozko alkatea eta kargodun bat, zorionak eman eta oroi-garria eta lore sorta eskaintzeko herritar guzien izenean.

Salome Iraienea etxean bizitu zen 1960. hamarkada arte. Hiru seme, sei iloba eta bederatz bi biloba ditu eta familia osoarekin argakia ateratzeko ilusioa du. Herritarrek egindako omenaldiak ilusio handia egin dio. "Ez nuen espero. Beti ongi moldatu naiz jendearekin baina ez nuen uste hain ongi kontsideratua nengoenik".

Gaur eguneko gazterik gauza onak dituela onartzen du, baina "ez zait ongi iruditzen eliza uztea. Lehen bizitza erlijiosoagoa zen, orain baino hobea". "Konprenitzen dut gauzak ezin direla berdinak izan -dio- baina gaur egungo gazteek fede gehiago eduki beharko lukete".



Salome AIZPURU GOÑI

ARLA
ARDOTEGIA
Ardoak • likorrak • freskagarriak
Santiago 56 • ELIZONDO
☎ 453266 (etxekoa) ☎ 452473 (bodega)

ERLOJU eta BITXI DENDA
ARRIETA
KIROL TROFEOAK
Tfnoa: 580 445 - ELIZONDO

JATETXEA
Tfnoa: 580101
Santiago 1
ELIZONDO

BAZTAN

'Folk ametsetan' zikloaren barnean igandero kontzertuak Arizkunenea Kultur Etxean

Mongolia eta Kataluniako taldeak arituko dira hurrengo bi igandetan

TTIPI-TTAPA

'Folk Ametsetan' zikloaren barnean hiru kontzertu antolatu ditu aurtien Kultur Zerbitzuak Elizondoko Arizkunenea kultur etxean. Kontzertu guziak igandetan emanen dira arratsko 8etan.

Joan den igandean Amaia Zubiriak eskaini zuenaren ondotik, azaroaren 10ean Mongoliako 'Tal Nutag' taldea arituko da. Datorren igandean, berriz, azaroaren 17an Kataluniako 'New Orleans & Tap' izeneko taldea arituko da.

Bertzalde, azaroaren 15etik 28ra Presen Lorente margolariaren lanak ikusgai izanen dira leku berean.



Baztan XVI. mendean

XVI. mendeko Baztango bizitza eta ohiturei buruz solasaldi interesgarria eskaini zuen Pedro M^a Esartek Arizkunenea Kultur Etxean. Hitzaldia, "Eusko Ikaskuntza: iragana, oraina eta geroa" zikloaren barnean eman zuen. Bere ondotik, Josean Mujika "Megalitos kultura", Mariano Izeta "Euskara nere sorterrian" eta Alejandro Arizkun "Baztango ekonomia: arazoak eta itxaropenak" gaiei buruz aritu ziren.

Argazkia: Joxemanuel

EPAIMAHAIKOAK

BAZTAN

- ALAVA SANZ, Alicia
- AMORENA BIKONDOA, Francisca
- ARRATXEA APEZETXE, Valeriano
- ASIAIN SALVADOR, M^a Jesus
- BARRENETXE DUFURRENA, Avelina
- CALVO RICO, M^a Josefa
- DAGERRE ITURREGI, M^a Teresa
- ETXENIKE ARRATIBEL, Ignacio
- ELIZETXE DAINZIART, M^a Jesus
- ESARTE BORDA, Santiago
- GAMIO GOÑI, M^a Milagros
- GONZALEZ MENADAS, Felix Javier
- GRAZENA ALMANDOZ, Maria
- IPARREA ITURRALDE, Juana R.
- IRIGOIEN MARITORENA, M^a Sagrar.
- ITURRIRIA GOÑI, M^a Rosario
- LANDA GORTARI, Asuncion
- LUKIN GUTIERREZ, Clara
- MENDIBERRI ARRIADA, Basilia
- MORENO MOYA, Luisa
- ORMART ETXEBERTZ, Martina
- PERNAUTE ETXANDI, Jesus M^a
- SAHARREA ALEMAN, Joaquina
- SATRUSTEGI ZUGARRAMURDI, Fco
- URRIZA INDART, Joaquina
- BERTIZ OSAKAR, M^a Concepcion
- ZUDAIRE HUARTE, Claudio

Besta usaina nabari da oraindik Basaburuan

PABLO MENDIBURU
Azaroan bagaude ere bestak ez dira akitu Basaburua aldean. Berroetan San Martin eguna ospatuko dute azaroaren 11n. Meza

eta ondotik berendufaria egingen dute Gure Ametsa elkartearen.

Zigan ere San Andres eguna prestatzen ari dira azaroaren 30erako.

Bertzalde, Zigako mendietan polizi foralak ibili dira egunotan. Postuetatik kanpo ezin da oraindik ehizirik egin eta hori zaintzen ibili dira foralak.

Arkupeak elkartean besta

Arkupeak jubilatuta eta pentsionisten elkarteak herrien anaitasun besta ospatuko du azaroaren 7an. Aurtengoan, berrikuntza bezala, Belaten eraiki

den tuneletako bat bisitatuko dute eta teknikoaren xehetasunak adituko dituzte. Ondotik Almandozko Beola jatetxean bazkalduko dute.

ERTZILLA
ALBAITARITZA
KONTSULTA
Txakur eta katuendako
ORDUTEGIA
10etatik 1etara eta 4etatik 8etara
Larunbatetan 10etatik 1etara
Santiago 30, ☎ 580627
Larrialdiak: ☎ 580762
ELIZONDO

IPINGI ZATOZ ETA IKUSI
Santiago 88, Tfnoa: 580939
ELIZONDO
TELAK:
Forro Polarrak, abrigoak, gonak...
ESKULANETARAKO MATERIALA:
Klase guzitako materialak
MODAKO ARROPA
Konjuntoak, jertseak...

Esquisaroi
jatetxea
Jaime Urrutia, Tfnoa: 580013
ELIZONDO

MENDI
OSTATUA
Santiago 25 - ☎ 580313
ELIZONDO

BAZTAN

Oronoztik Arraiozera trenbidean barna

Bertizko Turismo Partzuergoak antolatu du azaroaren 10erako

TTIPI-TTAPA

Bidasoako trenbidearen urteurrenaren ospakizunen barnean, ibilaldi interesgarria antolatu du Bertizko Turismo Partzuergoak.

Igande honetan, azaroak 10, goizeko 9,30etan abiatuko da ibilaldia Bertizko turismo bulegotik. Oronoztik Arraioz aldera joanen dira eta itzuli, guztira 7

kilometroko ibilbidea osatuz. Bisita honetan trenbide historikoaren tarte eder batzuk ikusiko dituzte, baita Oronozko herrian eta Ugaldea baserrian proposatzen diren alternatibak aztertuko dira. Eraberean, bide pribatuaren problematika ere jorratuko da.

Antolatzaileek mendiko bota arinak eramatea gomendatu dute.

Ameriketara gan nintzen...

Kanadako berriak, posta elektronikotik bilduak

MIKE ETCHART

Posta elektronikoaren bidez orai lastertxo jakitenal tugu Baztan aldeko berriak. Ganden maiatzean nere emaztea (Grace) eta ni izan ginen Elizondon hilabete baten pasa eta zuen errebista aunitz gustatu zautan, orai izigarri konten naiz hemen Merritt, B, C'n etxean errezibitzea. Atzo nere anaia Frank eta bere alaba Lori-Ann partitu ziren hemendik bi aste pasatzerat gurasoekin Joaquin Etchart eta Pilar Maritorenaren etxean.

Hemen ere familiak beti haunditzen ari dira, ganden Uzta-in hirugarren egunean sortu zen

Madison Pilar Etchart, nere seme Jim eta Desirae-in lehenbiziko alaba. Duela lau hilabete nere lehenkusinak, Isabel Maritorenak izan zuen bere lehenbiziko semea. Sebastian izena eman diote Mexikoko Puebla herrian, orai hilabete bat pasatu du hemen gurasoekin: Angel Maritoren Amaiurko Santxonekoa eta Maria Mihura Azpilkuetakoa. Eta heldu den astean berriz ere gibelat gaki da Pueblarat. Bertze berri haundirik ez dut oraikotz bainan pasatuko ditut agertzen diren bezala.

goraintziak deneri!

Mike Etchart
metchart@mail.awinc.com

URDAZUBI

51 urtez herriko apezta izandako Justino Taberna jauna hil da

Azkeneko hiru urtetan erretiratua zegoen

ALIZIA OLAIZOLA

Herriko apezta, Justino Taberna jauna, urriaren 25ean hil zen 90 urterekin. Abenduaren 29an 91 urte bete zuten eta sortzez Alkaiagakoa zen. 51 urte egon zen apez Urdazubin eta orain hiru urte erretiratua zen.



Aurtengo iratze lanak eta arto biltzeak beranduxeago egin dira, denborak ez duelakoz lagundu



- ♦ **Lehendabiziko bataioak aurten**
Urriaren 27an baitaiatu zituen Javier jaunak Angel Arozarena Galarregi eta Jaione Perurena Azkarraga.
- ♦ **75.750 pezeta**
eman dizkio udalak Urmeneta-Txokarro arkitektuei frontoia- ren moldatzea, Urtxume erreka ondoko parkea eta elizaren ondoan komunak eraikitzekeo memoria egiteagatik.
- ♦ **50.000 pezetako**
dirulaguntza eman dio Udalak ANFAS erakundeari aurten egin beharreko programana laguntzeko.

Jostungintza klaserik ez oraingoz

Helduendako jostungintza ikastaroa aspaldiko urteotan antolatzen ziren baina oraindik ez dira hasi aurten. Anastasi Bidart izaten zen irakaslea aspaldidanik. Nafarroako Gobernuak aldatu ditu ikastaro hauek eta orain udalak eta emakumeen elkartearen eskuetan gelditu da.

Egin mus txapelketan herriko hiru bikote sailkatu dira hurrengo txandarako

Azaroaren 8an Baionako Euskalduna ostatuan arituko dira

MIXEL ETA JACQUELINE

Urriaren 25ean, Euskal Herriko Egin mus txapelketako kanporaketak Herriko Etxeko edantegian egin ondoren, parte hartu duten 23 bikoteetarik hiru ariko dira herrialdeko finalerako. Azaroaren 8an, Baionako Euskalduna ostatuan ondoko muslari hauek bertze kalifikatuen aurka ariko dira: Ramuntxo Berrouet eta Jeannot Uhart; Pettan Elizalde eta Beñat Etchegaray eta Pantxoa Machicote eta Serge Bats.

Euskal Herriko finala Bilbon iraganen da azaroaren 17an. Zoririk onena opa diegu gure ordezkariari. Sari ederak izanen dituzte hementik aitzin eta nor-

baitek sari nagusia ekartzeko suertea izan dezake.

Sarako usategiak

Azken urteetan ez badute suerterik ukan, aurten usozaleak sariztatuak izan dira langile eta kideen esperientzia eta nahikundeari esker. Sarekada onak badituzte eginak eta agian hildoko beretik arituko dira bururatu artio. Izan ere, ehizi eguraldi ederrak izan dituzte ehizturiek asteotan eta sareaz hedatzeaz gain eskopeta astintzeko aukera izan dute. Tiro burrunba ederrak sumatu dira mendietan, behinpein.

Sareen bitartez ihiztatzeko ohidura xahar hunek iraun dezala oraino luzaz denen onetan!



Aurtengo Sarako bestak sariztatuak

Kanterbräu garagamo etxeak antolatu zuen lehiaketan Sarak zazpigarren saria ereman zuen. Hunen helburua zen "Frantziako besta ederrenen" sariztatea eta lehiaketa hortan 122 herriko parte hartu zuten. Lehen kanporaketak egin eta 20 parte hartzaile gelditu ziren. Bigarren kanporaketen ondoren 10 atxikiak izan ziren eta sailkatuak. Urriaren 22an sariak banatuak izan ziren Parisen eta gure herritik Besta Elkarteko sei kide joanak ziren eta 10.000 liberekin itzuli ziren herrirat.

MENDIALDE Jatetxea



Etxeko gasnak saltzen ditugu

Dantxarinearako bidean, 66. kilometroan

AMAIUR • Tfnoa: 45 30 60

Baztanen...



LOREDENDA • GARDEN CENTER

ESTHER FUNERARIA

Hilkutxak • Hilautoak • Eskelak •

Dokumentazioak

Beztitzeak, etab...

24 orduko zerbitzua

Eta Iruñean...



IRACHE TANATORIOA

Iratxe Monastegia, 60

Tfnoa: 26 09 54

Telefono mugikorra: 989. 706614

Errepide Nagusia • Tfnoa: 592200 • NARBARTE

Jaime Urrutia 39 • Tfnoa: 580668 • ELIZONDO

TIBURCIO GOIENETXE ETXEBERE

ANZABAL

AGENTZIA

■ Zurich Aseguruak

• Autoa, etxebizitza, istripu eta biziaseguruak

■ Lan aholkularitza

• Nomina eta Aseguru Sozialak

■ Aholkularitza fiskala

• Errenta Deklarazioak, IVA...

■ Inmobiliaria

• Baserri, borda, pisu, etabarren salmenta eta alokairua

■ Gestoria

• Ibilgailuen transferentziak, gidatzeko karnetaren berritzea eta edozein gisako gestioak

SANTIAGO 15 - Tfnoa eta Faxa: 580804 - ELIZONDO

EZKONTZAK

Eduardo Mitxelena Etxarte eta **Francisca Arozena Etxeberria**, Lesaka eta Urrotzkoa, abuztuaren 24an.

Francisco Javier Iriarte Otamendi eta **M^a Elisa Etxandi Istilart**, Bera eta Iruñakoa, urriaren 19an.

Martin Ariztegi Amigorena eta **M^a Carmen Elizondo Iribarren**, Orereta eta Iruñakoa, Lekarozen, urriaren 5ean.

Enrique Bikondo Goñi eta **M^a Carmen Elizalde Etxeberria**, Irurita eta Iruñakoa, urriaren 26an.

Francisco Javier Ortego Estonba eta **Isabel Beola Arburua**, Irun eta Berakoa, urriaren 12an.

Eustaquio Iparragirre Iparragirre eta **Maite Igoa Etxebeste**, Etxalar eta Berakoa, urriaren 19an.

JAIOTZAK

Janire Bakero Olaizola, Goizuetakoa, urriaren 21ean.

Sara Telletxea Igoa, Berakoa, irailaren 28an.

Ganix Mitxelena Jurio, Zugarramurdikoa, urriaren 27an.

HERIOTZAK

Francisco Berrueta Irisarri, Etxalarakoa, urriaren 15ean, 91 urte.

Juan Zelaieta Endara, Etxalarkoa, urriaren 16an, 92 urte.

Alejandro Larrea Huarte, Goizuetakoa, urriaren 21ean, 76 urte.

Martina Altugarai Lasaga, Lesakakoa, urriaren 15ean, 96 urte.

Maritxu Leitza Urrutia, Lesakakoa, urriaren 27an, xx urte.

Urbano Mortalena Iturriria, Erratzukoa, urriaren 23an, 77 urte.

Ignacio Irazoki Ugartemendia, Berakoa, urriaren 20an, 61 urte.

Justino Taberna Endara, Berakoa, urriaren 25ean, 90 urte.

Ignacio Apeztegia Petite, Doneztebekoa, urriaren 29an, 71 urte.

1996an jaiotakoei **TOPELIBRETA** 3.000 pezetarekin eta **TOPEBABERO** polit bat oparitzen diegu. Amendako "Está creciendo" liburua daukagu.

IRUÑEKO KUTXA

Fundazioa Lida Auzoko Kutxa

BAZTAN FUNERARIA

EHORZKETA ZERBITZUAK • HILKUTXEN ERAKUSKETA ETA SALMENTA • TRASLADOAK
Jaime Urrutia 53 • ELIZONDO
Tfnoak: 580373 • (908) 776176

SOULE

Gurutze eta hilarriak

☎ 453038 ARIZKUN
☎ 123572 IRUÑA

BODEGAS ERRASTI, S.L.

Bodegas Gailur

ARABAR ERRIOXAKO ARDOAK
GETARIAKO TXAKOLINA

Zonarako banatzailea
TXOPORRO Ardoak

M. Azpilkueta, 6 • ELIZONDO

☎ **58 02 78**



ROMANO dekorazioak

Pintura eta papereztatze lan guztiak egiten ditugu

- ☛ Zolak jartzen ditugu:
 - Kortxoa
 - Moksetak
 - Parketa
 - Sintasola
- ☛ Gure kolokazio tailerra daukagu

Aurrekontuak konpromezurik gabe

Legia I • Tel. 631137-630941 • **BERA**

IRAKURLEAK MINTZO

Leitzaldeko

Euskara

Teknikariari:

David Anaut, lehenik eta behin jaso ezazu agur bero bat. Gu ez goaz zure lana eta honen funtzionamenduarekin sartzera, zuk ordea, ustez, irratia mundua oso ongi menperatzen duzula ematen du. Euskara zerbitzuko lanak ez direnak argitzen dizkiguzu, baita gure estiloak ematen dizun lotsa eta pena ere.

Behin ere ez dugu ez zure etika ez zure gizatasuna zailantzen jarri, eta horiek bai aurpegiara esateko modukoak direla; zure laguntza eza baino ez dugu aipatu.

Noizbait (publikoki edo pribatuan) irratiaren funtzionamenduz hitz egiteko elkarrekin bagara, bide batez zure lanaren funtzionamenduz ere hitzegin dezakegu.

Memoria frexkatuz gero, irratia Antonio Txibite euskara teknikariaren bultzadari esker jaio zela gogoratzen dugu, gainera gure arteko harremana ezin hobea zela esan dezakegu, orduz geroztik aldatu den bakarra euskara teknikaria izan da. Irratiak eginiko lanari buruz, entzuleek esan ez digutena oraintxe zuk esan diguzu, botere pixko bat ere hartu duzu nonbait hiru urte hauetan! Orain arte irrati-

ren alde egin duzuen lanak fruitua eman berria du, ixildu egin duzue.

"Berriz ere, mila esker eskeini ez diguzun laguntzagatik". Beste bat arte

ABELI ZABALETA ETA ANABEL
ALDUNTZIN
(KARRAPE IRRAITKO LANGILE
IZANDAKOAK)



Manex Bergara, ene adixkide preziatuari

Nire doluminik sarkorrenak

OHARRA:

*Eritzi ezberdinek tokia izan dezaten, ez da komeni makinaz idatzitako 25 lerro baino luzeago idaztea gutun hauetan. Idatzi duenaren izen-deiturak, telefonoa, helbidea eta ENAaren zenbakia agertu beharko dira. Laburtu beharra izanez gero, **ttipi-ttapa** bere esku izanen du horretarako eskubidea. Ez dira argitaratuko beren nortasuna agertzen ez dituzten irizirik.*

helerazi nahi dizkizut lerro xume hauen bidez. Urrian ukan nuen TTPI-TTAPARI esker jabetu nintzen Marcelle, zure emazte on eta zintzoa, zendu zena.

Hitz hauek murriz egiten zaizkit Manex, nire samina eta atsekabea azalduarazteko. Urte honen hastapenetik hona bi pertsona kuttun joan zaizkigu bat-batean; eta urte batzuk zuegandik urrun daramatzadan arren, nire bihotzak oso minberakor darrai zuek guztiekiko. Urruntasunak ez du hoztu, eta ezta hoztuko ere, gure laguntasuna. Hortaz, honelako gertakari hitsek, sekulako zafaldia eman ohi didate, eta biziki mintzen nire barne erraiak.

Luze eta zabal segituko nuke zurekin kalakan Manex, baina hementxe utzi beharko zaitut gaurkoz ezinbestean.

Haatik, jakin ezazu nire bihotzean zaitudala mementu zail hauetan eta halaxe atxikiko zaitudala bizi naizeno. Har ezazu Manex, maitasunez hornituriko nire besarkadarik anaikorrena. Adore, zinez, ene 'xahar' maite horri.

ERROTA



Folk ametsetan

Baztango Kultur Zerbitzuaren eskutik folk kontzertuak igande arratsetan

'Folk ametsetan' izeneko zikloaren barnean, hiru kontzertu antolatu ditu aurten Baztango Kultur Zerbitzuak Elizondoko Arizkunenea Kultur Etxean. Kontzertu guztiak igandetan emanen dira, eta denak ordu berean, arratseko 8etan.

Lehenbiziko kontzertua joan den igandean izan zen eta Amaia Zubiria kantari ezagunak eskaini zuen. Amaiarekin Paskal Gaigne eta Angel Unzu aritu ziren gitarrarekin, Joxean Goikoetxea sintetizadorearekin eta Luis Camino perkusioarekin.

Falta diren bi kontzertuak igande honetan berean eta hurrengoan izanen dira. Igande honetan, azaroak 10, Mongoliako talde bat izanen dugu Elizondon, *Tal Nutag* izenekoa. Kantariak duen boz ederrarekin lagundurik, musika tradizionala eta gaur eguneko tartekatzen ditu talde honek, nagusiki Mongoliako Ordos eskualdeko musika estiloa berezia.

Hurrengo igandean, azaroak 17, Kataluniako *New Orleans Jazz & Tap* izeneko taldea arituko da. Jazz musika eta klake dantza, biak eskeintzen dizkigute bakarraren prezioan.



Amaia Zubiria



Tal Nutag



New Orleans Jazz & Tap



SANTAMARIA Jatetxea

Espezialitatea euskal sukaldaritzan
Eguneko menua eta karta

Nagusia 30, Tf.: 45 00 43 - DONEZTEBE

IBARROLA

HAURRENDAKO ARROPA • MERTZERIA

Parrokia 6 • Tfnoa: 45 04 63 • DONEZTEBE



ARTESANOS CAMISEROS

IRUNen...

Fuenterrabia, 2 • IRUN
Tfnoa: (943) 61 44 68

Neurrira egindako atorrak eta blusak GIZON, EMAKUME eta HAURRENDAKO

Eskulangintza eta Teknologia elkartu ditugu zure atorrak egiteko. Aukera itzazu gehien gustatzen zaizkizun telak eta estiloak 170 modelo desberdinen artean.

4.900 Pta.tik gora

Neurriak gorde egiten ditugu ordenagailuan. Hurrengo batean tela aukeratu eta listo!

Euskal Herriko aizkolari txapelketan berriz ere bigarrena izan da Donato Larretxea

- Ustegabeen Igeldoko Joxemari Olasagasti suertatu zen txapeldun
- Arrospide hirugarrena gelditu zen eta Mikel Mindegia bosgarren

Urriaren 27an burutu zen Arabako Oionen Euskal Herriko aizkolari txapelketa nagusiko finala eta bertan, ustegabeen, Joxemari Olasagasti suertatu zen txapeldun. Sei aldiz azpitxapeldun izan ondotik sari nagusia eskuratu duen lehen aldia da igeltoarrarentzat. Hamabi enborrak 34 minutu eta 24 segundutan moztu zituen. Bertze urte batez, txapeldunordea izatearekin konformatu behar izan zuen Donato Larretxea arantzarrak, Igeldokoak baino 37 segundu gehiago behar izan baitzituen lana bukatzeko. Halere, lanerdiak egin arte zenbait enborretan aurretik ibili zen Donato. Azkeneko, ordea, orain bi aste izandako gripearen eragina nabaritu zuen eta bigarren postuan ge-

ratu zen. Komunikabidei errandakoaren arabera, *"bete egiten nintzen, barrena garbitzeko baitaukat oraindik; gainerakoan, gaur nire buruan egonen zen txapela"*.

Hirugarrena, azken urteotako txapelduna, Arrospide, sailkatu zen Peñagarikanorekin lehia gogorrean aritu ondotik (segundu bakarreko aldea atera zion azkenean). Bosgarren postua Zubietako Mikel Mindegia eskuratu zuen eta seigarrena Floren Nazabalentzat izan zen.

Euskal Herrikoaren ondotik Nafarroako txapelketaren txanda izanen da orain. Finala Doneztebeko ferietan jokatuko da eta bertan ari tuko dira Larretxea, Nazabal, Mindegia, Senosiain eta Etxeberria.



Euskal Herriko aizkolari txapelketa nagusia

	1.	2.	3.	4.	5.	6.	7.	8.	9.	10.	11.	12.
Olasagasti	1.06	2.22	4.29	7.14	11.45	16.07	20.22	24.40	27.20	30.23	32.32	34.24
Larretxea	1.03	2.22	4.47	7.24	11.39	15.36	20.04	24.56	28.06	31.04	33.13	35.01
Arrospide	1.13	2.44	5.09	7.35	12.02	16.25	21.03	25.47	28.54	31.26	33.29	35.38
Peñagarikano	1.12	2.50	5.21	8.03	12.29	16.38	21.12	26.04	28.49	31.23	33.35	35.39
Mindegia	1.19	2.26	5.27	7.57	12.33	17.10	21.52	26.36	29.22	32.01	34.15	36.57
Nazabal	1.28	3.03	5.48	8.28	13.14	17.29	22.27	27.28	30.39	33.39	36.17	39.04



Argazkiaren ezker aldean Maika Ariztegi eta eskuinean Antonio Bru. Beraien artean kategoría ezberdinetan aitzineko postuetan gelditu ziren laisterkalariak. 62 lagunek parte hartu zuten proban. Argazkia: LEGARRA

ATLETISMOA

Antonio Bru eta Maika Ariztegi irabazi zuten Lizuniagako Igoera

Antonio Bru beratarra eta Maika Ariztegi iturendarra nagusitu ziren senior mailan urriaren 27an Berako Lizuniagako Igoeraren hamaseigarren edizioan. Bruk 17'15" behar izan zituen 5 kilometroak egiteko, Agustin Garcinuñok baino 15 guttiago. Halere, probaren errekorretik minutu batera gelditu zen beratarra. Emakumezkoen artean kontrariorik ez

duela erakutsi zuen berriro Maika Ariztegi eta 20'37" bukatu zuen ibilbidea (iaz eberak egindako errekorra baino 19 segundu gehiago). Bigarrena hiru minutu t'erdi beranduago sartu zen.

Bitxikeria bertze mailetan gertatu zen, beteranoetan Angel Azpiolea irundarra gailendu baitzen eta junioren artean, berriz, Gotzon bere semea.

DATUAK.....

1 Donato Larretxea duela 36 urte jaio zen Arantzako Perikonborda baserrian.

2 Almandozen 18 urtez bizitu da eta azken 16ak Beran. Ezkondua eta 6 urteko seme baten eta 3 urteko alaba baten aita da.

3 18 urterekin hasi zen aizkoran. Zenbait urtez utzi zuen eta gero 23 urterekin hasi zen berriro. 24 urterekin Euskal Herriko txapelketan sartu zen.

4 Nafarroako bi txapelketa eskuratu ditu eta sei aldiz Euskal Herriko azpitxapelduna izan da.

5 Baserrian eta mendian aritzen da lanean.

TESTUA:
AITOR AROZENA
ARGAZKIA:
ARTXIBOKOA

Donato LARRETXEA Arantzako aizkolaria


"Proba normal joaten bada neretzat izanen da Nafarroako txapela"

Euskal Herriko aizkolari txapelketan bigarrena izan ondotik Doneztebeko ferietan jokatu den Nafarroako txapelketari begira dago Donato Larretxea. "Irabazteko esperantza badut. Zaila izanen da, Nazabal hor dago, Mindegia ere oraindik ongi dabil, baina faborito bezala aterako naiz. Normalean nik irabaziko dut, baina lehengogan ere Arrospide zen faboritoa eta begira...".

Txapelketaz gain, apostu ikusgarriak ere jokatu ditu, horien artean Olasagastiren kontrako triathloi berexia: "125 kiloko harri kubikoa 50 aldiz altxatu, sei bi oineko moztu eta sei kilometro laisterka, hura nik irabazi nuen. Olasagasti berarekin badut bertze apostu batzuk eginak, bat bi ordu baino gehiagoko lana, horiek ere nik irabaziak. Mindegiarekin ere pare bat apostu egin ditut, bat irabazi nuen eta bertzea galdu".

FINALERA BEGIRA

Doneztebeko finale-ra bueltatuz, kontrarioak aztertu ditu Larretxeak. "Mindegiak lan ederra eginen du baina ez dut uste zailtasun haundirik emanen naue-nik. Nazabal exhibiziotan dexente ibiltzen da baina txapelketetan ez



«Aizkora uztea sarritan pentsatu dut gerrietako arazoak direla eta»

du gauza haundirik demostratu orain arte. Etxeberria eta Senosiainen maila pixko bat guttiago dutela iduritzen zait". Beraz, bere burua animoekin ikusten du txapela eskuratzeko eta 36 urte izan arren ez du erretiroan pentsatzen. "Boladaka gerri arazo-

ak izaten ditut, baina nik ez dut bajarik sumatzen. 40 bat urte arte segituko dut". Ez du gaitnera, alde haundirik nabaritzen lan luze eta motzen artean. "Bietan ongi defenditzen naizela erakutsi dut" dio arantzarrak. Txapelketarako ez du aparteko prestaketarik egin, "denbora gutti izaten dut preparametako. Lantegi honetatik ezin gara bizi, nonbait lana egin behar da eta nahiko gaizki ibiltzen gara".

Aizkoran hasi zene-tik oroimen onena Euskal Herriko txapelketan parte hartu zuen lehen aldikoa du, 1984an. "Tolosan atera nintzen eta sorpresa eman nuen, faboritoen artean bigarrena egin nuen. Hurrengo urtean ere irabazteko puntuan egon nintzen baina Mindegia aurreratu zitzaidan". Beretzat zubietarra izan da, hain zuzen, ezagutu duen aizkolari onena nahiz eta orain Arrospide atera den aurrera. ■

» "Denbora gutti izaten dut txapelketak preparametako. Lantegi honetatik ezin gara bizi, nonbait lana egin behar da eta nahiko gaizki ibiltzen gara"

AGENDA EGUNEZ EGUN

FERIAK

DONEZTEBE

► **Azaroaren 15ean** Xehetasunak 18 eta 19. orrialdeetan.

LESAKA

► **Azaroaren 21ean** tokatzen dira aurten Lesakako Feriak.

BESTAK

AURTIZ

► **Azaroaren 7tik 11ra** Xehetasunak 22. orrialdean.

KULTUR ASTEAK

ARANTZA

► **Azaroaren 14 17ra** Hitzaldiak, bazkari-afariak, erakusketak... Xehetasunak 15 orrialdean.

EKITALDIK

BAZTAN

► **Azaro Antimilitarista** Xehetasunak 26 orrialdean. Hitzaldiak, pelikula emanaldiak, musika animazioa... larunbatero.

FOLK AMETSETAN

ELIZONDO

► **Azaroaren 10ean** Mongoliako 'Tal Nutaj' izeko taldea arituko da Arizkunenean arratseko 8etan.

► **Azaroaren 17an** Kataluniako 'New Orleans Jazz & Tap'. Jazz musika eta klake dantza ordu eta leku berean.

BASERRIA



ZERRIKIA

- **Zerrikumea** (20 kilokoa): 6.000 pza.
- **Zerri gizona** (95-100): 180 pza./kilo
- **Zerramak**: 135 pza./kilo bizirik.



BEHIKIA

- **Aretze gizenak:**
 - **Idixkoak:** Pza./kg. Kanal
- | | |
|-------------|------|
| Extra | .530 |
| 1.koa | .500 |
| 2.koa | .490 |

- **Urruxak:** Pza./kg. Kanal
- | | |
|-------------|------|
| Extra | .540 |
| 1.koa | .540 |
| 2.koa | .500 |

Oharra: Prezio hauek 300-340 Kg. kanalean dauzkaten idixko eta 200-250 kg. dituzten urruxentzako.

- **Aretze tikiak** (15 egun inguruokak):
- **Nabarrak:** urruxak 17.000 - 20.000 eta idixkoak 22.000 - 27.000 Pza.

• **Mestizoak:** urruxak 24.000 - 28.000 eta idixkoak 35.000 - 40.000 Pza.

- **Behi zaharrak:**
- Behi nabar gizona: 350 Pza./Kg. Kanal. Behi gorri ona: 400 Pza./Kg. Kanal.

DATU ITURRIAK: EHNE

HAMABOSTALDIKO GOMENDIOA

Nafarroako Aizkolari Txapelketa Doneztebeko Ferietan jokatuko da

Azaroaren 15ean jokatuko da Nafarroako Aizkolari Txapelketa Donezteben. Proba arratsaldeko Setan hasiko da eskolako pilotalekuan eta hantxe arituko dira Etxarri-Aranazko Floren Nazabal, Mikel Mindegia zubieta-rra, Donato Larretxea aranztarra, Olagueko Antonio Senosiain eta Patxi Etxeberria sunbildarra.

Hamarna enbor izanen dituzte mozteko: lau kanaerdi-koak, 60 ontzako bertze lau eta 72 ontzako bi. Gaur egun Donato Larretxea da Nafarroako txapelaren jabe, eta aizkora txapelketetan adituak direnen ustez, bera da berriz ere aurtengo txapela eskuratzeko faborito nagusia.



Adituen ustez Donato Larretxea da txapela eskuratzeko faborietotako bat

FOTO MENA

ZURE ARGAZKIAK
ORDU BATEAN EGITEN DITUGU

IA 100 URTE KALITATEA ETA PROFESIONALTASUNA ESKEINIZ

KARRIKA NAGUSIA 4 - TENO. ETA FAXA: 45 08 25 DONEZTEBE
SANTIAGO KARRIKA 40 - TEL: 58 01 55 ELIZONDO

IGANDE GOIZETAN IDEKITA DUGU

- Liburuak
- Papertegia
- Tabakoa
- Plastifikazioak egiten ditugu
- FAX publikoa
- Enkuadernatzeak
- Inprenta lanak

Legarrea, 9 • © 63 70 30 • LESAKA

Telefonia mugikor digitala

Espanian bi konpainia daude telefonia mugikor digitalaren zerbitzua eskaintzen dutenak. Alde batetik MOVISTAR, Telefonikaren eskutik; eta bestetik AIRTEL, Airtel S.A. ren eskutik.

Bi konpainiak sistema berri honen ezarpen prozesuan daude momentu hauean, eta horregatik, seinalearen errepikagailu-sarea hiri haundi eta trafikogehien duten errepideetara dago mugatua. Nazioarte mailari dagokionez, antzeko zerbait erran dezakegu. Europan, batez ere, seinalearen hedadurak errepide nagusiak hartzen ditu printzipalki. Asian, Ameriketara... hedadura mugatuago dago hiri haundietara.

Mugikortasun haundiko pertsonak

Aplikazio bakarra ez bada ere, sare hauek mugikortasun haundiko pertsonen beharrak betetzeko daude pentsatuak. Haatik, beren ordenagailu portatilatik fax transmisioak



Mugikortasun haundiko pertsonen beharrak asetzeko daude pentsatuak telefonia sistema hauek

egin behar izaten dituztenek ere, nahiz eta nazioarte mailan sobera mugitu ez, telefonia mugikorrean dute lagunik hoberena. Hoiekin batera, lanbidea dela eta beren lanak munduko edozein lekutara bidali behar izaten dituztenek ere, berdina da testuak edo irudiak izan, modu erraxean egin dezakete sistema honekin. Bidali nahi dena ahotsa denean, nahikoa da telefonoarekin. Bertzelako datu edo faxak bidali nahi bagenitu, telefonoaz

gain, ordenagailu portatulari lotzeko behar den kablea eta PCMCIA txartela beharko dugu.

Laburki, hauek dira sistema digitalak dituen aplikazio nagusiak:

- Mundu mailako hedadura duen telefonoa.
- Ordenagailuak elkar lotzeko sistema arras mugikorra.
- Faxak hartu eta bidaltzeko sistema mugikorra.

BORTZIRIK ESKAINITAKO
AHOLKUA (BERA)

AGENDA EGUNEZ EGUN

ERAKUSKETAK

ELIZONDO

► **Azaroaren 1etik 14ra** Bidasoako Trenari buruzko erakusketak Kultur Etxean.

► **Azaroaren 15etik 28ra** Presen Lorente margolariaren lanak ikusgai egonen dira Arizkunenean.

DONEZTEBE

► **Azaroaren 18tik abenduaren 3ra** Bidasoako Trenari buruzko erakusketa.

MENDI IRTEERAK

BAZTAN

► **Azaroaren 10ean** Zozaia-Zozaia (P.R.) (Arraiotz-Urrizka-Mugaiari-Arraiotz) ibilaldia eginen dute Baztango Mendigoizaleek.

► **Azaroaren 17an** Aiako Harrietara joanen dira Baztango Mendigoizaleak (Lesaka-San Anton-Aritxulegi-San Anton-Agiña-Lesaka).

GUARDIAKO BOTIKAK

061 Tfnoa. deitu behar da

► **Azaroaren 4tik 10era** Bera, Sunbilla, Elizondo (Lezaun) eta Goizueta.

► **Azaroaren 11tik 17ra** Etxalar, Ituren, Elizondo (Iturralde) eta Goizueta.

► **Azaroaren 18tik 24ra** Arantza, NARBARTe, Elizondo (Lezaun), Urdazubi, Leizeta eta Goizueta.

BORTZIRI
ASISTENTZIA TEKNIKORAKO ZERBITZUA
Tfnoa: 63 10 91
Iturlandeta, 1 • 31780 BERA

CANAL

Televés

GISA GUZIETAKO ANTENEN INSTALAZIOA:

- Kolektiboak
- Indibidualak
- Parabolikoen instalazioa 50.000 Ptatik. aitzinera.

Aurrekontuak konpromisurik gabe eskatu

HIGIEZINAK SALTZEKO

- 101. Etxeak
- 102. Etxebizitzak
- 103. Baserriak
- 104. Txaletak
- 105. Apartamentuak
- 106. Merkataritza-lokalak
- 107. Garajeak
- 108. Lurrak/orubeak

HIGIEZINAK EROSTEKO

- 111. Etxeak
- 112. Etxebizitzak
- 113. Baserriak
- 114. Txaletak
- 115. Apartamentuak
- 116. Merkataritza-lokalak
- 117. Garajeak
- 118. Lurrak/orubeak

ESKUALDATZEAK

- 121. Merkataritza-lokalak
- 122. Bertzelakoak
- 131. Etxeak

zein erraza den
zure anuntzioa
hemen jartzea...

Hegoaldetik deitzeko 948-
Iparraldetik 00-34-48

631188



...eta gainera, zure berri zonako etxe guzietan izanen dute!!

Sail honetan partikular, profesional eta merkatarien informazio eta zerbitzuen berri ematen da. **ttipi-ttapa** ez du bere gain hartzen dohainik argitaratuak diren iragarkien ondorioz sortzen ahal diren operazioen erantzukizunik.

ERRENTAN HARTZEKO

- 132. Etxebizitzak
- 133. Baserriak
- 134. Merkataritza-lokalak
- 135. Lurrak/orubeak
- 136. Bertzelakoak
- 141. Etxeak

ERRENTAN EMATEKO

- 142. Etxebizitzak

- 143. Baserriak
- 144. Merkataritza-lokalak
- 145. Lurrak/orubeak
- 146. Bertzelakoak

ZERBITZUAK

- 201. Hargin/Igeltseroak
- 202. Pintoreak
- 203. Elektrizistak
- 204. Iturginak
- 205. Zurginak

- 206. Osasun arlokoak
- 207. Mendi lanak
- 208. Gestoriak
- 209. Garraioak
- 210. Bertzelakoak

LANA

- 301. Eskariak
- 302. Eskaintzak

IRAKASKUNTZA

- 401. Eskaintzak
- 402. Akademiak

MOTORRA

- 501. Saldu
- 502. Erosi
- 503. Tailerrak
- 504. Bertzelakoak

ANIMALIAK

- 601. Saldu
- 602. Erosi
- 603. Eman
- 604. Klinikak

DENETARIK

- 701. Galdu/aurkituak
- 702. Salerosketak
- 703. Bertzelakoak

HARREMANAK

- 801. Agurrak
- 802. Deialdiak

HIGIEZINAK SALTZEKO

102 ETXEBIZITZAK

BERA. Pisu salgai Iturlandeta karrikako 6.ean, 2.A. 89m² ganbararekin. Prezio negoziagarria. 'Drogeria Molinero'ren blokean. ☎ 630455.

ELIZONDO. Txokoto auzoan pisua salgai. ☎ 580712. Arratsetan.

BERA. 96m² ko pisua eta 34m² ko bajera salgai. Prezioaz solastuko dugu. ☎ 630686. Arratsetan.

HIGIEZINAK SALTZEKO

103 BASERRIAK

ETXALAR. Pisua salgai. 3 logela, sukaldea, egongela, bainua eta trasteroa. Denak kanpoaldera ematen du eta bizitzera sartzeko moduan. ☎ 635146.

HIGIEZINAK SALTZEKO

106 MERKATARITZA-LOKALAK

BERA. 44 m²ko garaje edo lokal komertziala salgai. Ura eta argia. Legia karrika. ☎ 630482 - 630136.

ELIZONDO. 5.525m²ko te-

HIGIEZINAK SALTZEKO

108 LURRAK-ORUBEAK

rrenoa salgai. Badu ura, argindarra eta saneamendua. ☎ 452431.

HIGIEZINAK EROSTEKO

112 ETXEBIZITZAK

BERA. Pisu edo etxea erosiko nuke, edo beharbada, errenta merkean hartu. ☎ 210015 (M^a Angeles Aramendia).

HIGIEZINAK EROSTEKO

112 BASERRIAK

BAZTAN. Baserri edo borda erosi edo errentan hartuko nuke. ☎ 989.483290.

MALERREKA. Borda bat erosiko nuke bere terrenoarekin. ☎ 451774. Arratsetan.

ESKUALDATZEAK

121 MERKATARITZA-LOKALAK

ORONÓZ-MUGAIRI. Osorri den eskualdatu edo traspasatu nahi da. ☎ 592245.

ERRENTAN HARTZEKO

133 BASERRIAK

BAZTAN-BIDASOAN. Baserri edo etxea hartuko genuke errentan hiru laguneren artean, zeramika tailerrean lan egiteko. ☎ 256241.

ERRENTAN EMATEKO

142 ETXEBIZITZAK

ELIZONDO. Pisu bat errentan emanen nuke. ☎ 580484.

ZERBITZUAK

205 ZURGINAK


Juanjo ERRO

Zurgin lanak orokorrean
Moble zaharrak
konpontzen ditugu
Alan-zahar • LESAKA
☎ 948-637862

ARANTZA ZYRGINDEGIa

Jose Miguel Erandocena
Klase guztietako
zurgin lanak
Osia zuzoa ☎ 948-634068 • ARANTZA

ttipi-ttapa
1998ko urriak 4 - 1998ko azaroak 10



Bidali TTAPI-TTAPA herritik kanpo bizi diren lagun edo familiakoei

Bakar bakarrik bidaltze gastuak ordaindu behar dira. Eskatu informazioa.

☎ **631188**

ZERBITZUAK

210 BERTZELAKOAK

M^{re} Dolores Miñana
TOPOGRAFOA
 Lur neurketak, Luberriak
 Plantazioak, etab...
 ☎ 580143 - 989.445986
 Santiago 68, 3. esk. ELIZONDO

LANA

301 ESKARIAK

Etxeko lanetan arituko nintzateke. Igoal da orduko edo astean egun batzuk. ☎ 450923 (arratsetan hobe).

Ordenadorez lanak egiten dira. Fakturak, kartelak... Programa hauetan: Windows, Word, Acces, Excel eta Harvard Graphics. ☎ 450441.

Kartelak, buzoiratzeko paperak, bisita txartelak, Faktura taloiak... egiten ditugu. ☎ 631188. Bulego orduetan.

Neska batek lan eginen luke goizez Baztan-Malerreka aldean. Esperientzia dut haurrekin eta etxeko lanetan ☎ 581265.

MOTORRA

501 SALDU

Trialeko moto bat salgai, Montesa Cota 309 markakoa. ☎ 453037.

Ford Fiesta salgai, NA-S matrikuladuna. ☎ 631343 (8etatik aitzinera).

SAMPI ARAGON
 Bigarren eskuko autoak erosten ditugu. **Salgai** daude 2 Mitsubitsi, Vitara, Ford Escort eta Fiesta, Opel Kadet, Peugeot 205.
 ☎ 45 03 54 • DONEZTEBE

MENDAUR MOTOR
 ☎ 450333 • DONEZTEBE

Suzuki Vitara laburrak eta luzeak, FordEscort eta Peugeot 205.
 Tapizeriak garbitzen ditugu.

AUTO BERRIEN
 ERAKUSKETA ETA SALMENTA
 ☎ 63 06 23 • BERA

ANIMALIAK

601 SALDU

Luma ehiziko zakurkumeak salgai, pointerrak, bi hilabetekoak. ☎ 453079.

Behia salgai, 6 urtekoa, 8 hilabete emari eta oso esnetsua. ☎ 610638..

Zortzi urteko **astoa** bere umearekin salgai. Lanean ibilia. ☎ 450907.

30 ardi gazte beraien dertxoekin salgai. Karrantzako mutur-gorri arrazakoak. Azaroaren 20 aldera umatu beharrak dira. ☎ (94) 4638215 - 6809000.

6 urteko mando zikiratua salgai. ☎ (94) 4638215 - 6809000.

Ahuntz emari aitzindua salgai. ☎ 637772. Eguerditan.

Zerrama gaztea salgai. ☎ 634093.

ANIMALIAK

604 KLINIKAK

ALBAITERITZA KLINIKA
 Txertoak, analisiak, kirurgia, pentsuak eta osagarriak
 ☎ 627660 LESAKA




ADOS

INMOBILIARIA AGENTZIA

Julian Izura Nuin

BERA.

- 110 m²ko pisu zoragarria salgai. Kanpoaldera ematen du eta sartzeko prest dago.
- Etxe zoragarria salgai.
- Duplex berri-berria salgai.
- 200 m²ko bajera komertziala salgai.

LESAKA.

- 60 m²ko bajera bat salgai. Arras prestatua dago.
- Ardotegia salgai.
- Etxe elkarrri atxikiak salgai. Familiabakarrekoak.
- Pisuak, garajeak eta bajeak salgai. Finantziazio berezia dute.

ETXALAR.

- Etxe bat salgai 15.000 m²ko eremuarekin.
- Baserria salgai herritik 2 km.tara.

IRURITA.

- 140 m²ko etxebizitza salgai, 400m²ko lur eremua.
- 350 m²ko etxebizitza salgai, 200m²ko lur eremua.

ELIZONDO.

- Pisu merke bat salgai.
- Pisu bat errentan emateko prest.
- 400 m²ko bajera salgai.
- Familia bakar eta bi familiendako etxeak salgai.

ORONÓZ-MUGAIRI.

- Pisu bat salgai.
- Nabeak salgai.

LEGASA.

- Pisu salgai.

NARBARTE.

- Pisu handi bat errentan emateko prest.
- Pisu berria salgai.

DONAMARIA (IGURIN).

- Txaleta salgai Igurin uzoan.

DONEZTEBE.

- Pisu batzuk errentan emateko prest.

Modu askotako kontratuak egiten ditugu eta baita lege-arazoak konpondu ere. Badugu abokatuak. Deiguzu konpromezurik gabe.

Telefonoak: 451841 / 908.778653 • Parrokia, 5-2. ezk. • DONEZTEBE

- Pisu batzuk salgai.

ELGORRIAGA.

- Pisu salgai.
- Etxe polit bat salgai edo pisu batekin trukatu.
- 3.000 m²ko eremua salgai.
- Familia batendako etxea salgai edo errentan emateko.

ITUREN.

- Etxea eder bat bere lur eremuarekin salgai.

ZUBIETA.

- Pisu berri batzuk salgai. Finantziazio berezia dute

ERATSUN.

- Baserria salgai.

ARESO.

- Baserria salgai.
- 5.000m²ko lur eremua salgai.

BETELU.

- Baserria salgai.

BERASTEGI.

- Txaleta salgai.

PREMIAZKOAK

- Beran edo Lesakan baserri edo etxea.

AUKERAK

- Zubietako pisuak 8.250.000 Pta.
- Berako duplexak 9.700.000 Pta.
- Legasako pisua 7.000.000 Pta. negoziag.
- NARBARTeko pisua
- Igurineko txaleta
- Elizondoko unifamiliar eta bifamiliarak
- Lesakako pisuak 15.000.000tik goiti.
- Lesakako bajera 7.500.000 Pta. negoziag.

DENETARIK

702 SALEROSKETAK

Vaporettoa salgai. ☎ 634093.

Sofa-cama bere bi besaulkiekin eta bigarren eskuko **labadora** salgai. ☎ 634089 (Arantzan. Deitu arratsaldeko 8etatik goiti).

Trikitixa erosiko nuke, bigarren eskuko (si bemol). ☎ 630421.

Behiak jeizteko makina salgai Westfalia markakoa oso gutxi erabilia. ☎ 610638

Deshumifikadore bat behar dugu. ☎ 450428 (arratsetan).

Bateria salgai, Pearl Forum Series markakoa. ☎ 631183.

Sukalde ekonomikorako **ur-deposito** erabilia erosiko geuke. ☎ 451537.

Sukalde kalefaktorea, Hergon, egurrezkoa eta guti erabilia salgai. ☎ 631380 635194.

330 litroko **esne-tankea** salgai, Alfa-Laval markakoa. ☎ 450679.

100 watioko **anplifikado-**

rea salgai, Marshall JCM 900 markakoa. ☎ 630516 (Raul).

Gitarra elektrikorako pedalk salgai (Boss DSD 3 Delay, Wah-wah Cry Baby eta Turbo Distorsion). ☎ 630516 (Raul).

Komertziorako mobleak salgai: egurrezko estanteria lau modulo, frigorifiko-kongeladorea (murala) eta pisu elektronikoa. ☎ 630976.,

HARREMANAK

801 AGURRAK

Berako Izaskuneri: zorionak zure urtebetetzean, bere familiaren partetik.

Nerea Legazkueri: zorionak bere urtebetetzean (azaroaren 15ean). Nekane, Nagore eta Itziaren partez.

Goizuetako Juan Loiarteri: Zorionak. Zure 6. urtebetetze egunean merienda goxoa prestatu. Muxu haundi bat. Z.G.P.

Lesakatik Mugairera eraman zidan mutilari eskerak eman nahi dizkiot motxila itzultzeagatik. X.R.

Aresoko Maribel-i: zu eroso lagun ona eta jatorra zara. Ezkurrako lagunena partez.



Eratsungo Julen Retegiri: uste nuen ez zenekiela euskaraz baina esan didatez badakizu. Asko maite zaituen Ezkurrako neska baten partez. L.M.

Ezkurrako Jaione Zabalarri: oso irakasle ona zara. Zuk dakizun ikasle baten partez.

Eratsungo Maiteri: oso guapa eta maja zara. Ezkurrako mutil baten partez.

Leitzako Iratxe eta Ainhari: oso lagun onak eta jatorrak zarete. Segi horrela. Ezkurrako zuen lagunena partez.

Xebe Ibañrari: Zorionak

zure urtebetetze egunean, azaroak 8an, zure familiaren partez. Txokolate bat zor diguzu.

Narbarteko Joxe eta Maiteri zorionak zuen urtebetetze egunetan; azaroaren 1ean eta 3an ziren. Bera-ko lagunak

URTEBETETZEAK

Argazkiak berreskuratu nahi badituzue, bidali zuen helbidea eta selloa ere, edo nahiago baduzue pasatu gure bulegotik.

Sail hau dohanekoa da.

Norbait zoriondu nahi baldin baduzu, bidali bere argazkia eta datuak helbide honetara

ttipi-ttapa

Urtebetetzeak Sailerako Herriko Etxeko Plaza, 1 31780 BERA



Aitor Bengoetxea Olaetxea lesakarrak azaroaren 12an beteko ditu 7 urte. Zorionak aita, ama eta Jokinen partez.



Unai Sapuppo Alegria doneztebarrak urriaren 18an beteko ditu 3 urte. Zorionak!



Andoni Taberna Telletxea igantziarrak azaroaren 17an beteko ditu 4 urte. Zorionak aita, ama eta Josuren partez. Zorionak trasto!



Jonatan Rubia Anton leitzarrak urriaren 27an bete du urte bat. Zorionak zure guraso eta arrebaren partez.



Mª Carmen Mendizabal lesakarrak azaroaren 3an bete ditu 21 urte. Zorionak!



Matixa Oteiza Goienetxe lesakarrak urriaren 25ean bete ditu 4 urte. Irain eskolan ikasten ari da.



Amaia Abuin Arrasate 'lesakarrak' urriaren 22an bete ditu 29 urte. Oraindik? Zorionak.



Sheila Rubia Anton leitzarrak urriaren 22an bete ditu 8 urte. Zorionak zure guraso eta anaiaren partez.



Jaime Sein Osinaga doneztebarrak azaroaren 5ean bete ditu 6 urte. Zorionak eta muxu haundi bat familikoena partez.



Maria Errandonea Aranibar beratarrak azaroaren 19an 14 urte beteko ditu. Zorionak zure lehengusuen partez.



Usua Errandonea Aranibar beratarrak azaroaren 14an beteko ditu 9 urte. Zorionak zure familiaren partez.



Igor Retegi Bengoetxea arraioztarrak azaroaren 16an beteko ditu 7 urte. Zorionak gurasoen eta Oihanaren partez.



Clara Cia Danboriena beratarrak azaroaren 11n beteko ditu 4 urte. Zorionak Ubas izebaren partez.



Leire Cia Danboriena beratarrak azaroaren 11n beteko ditu 4 urte. Zorionak Ubas izebaren partez.

AMAIYR

SUKALDE MOBLEAK BAINUAK



Zure sukaldean apaintzearekin
baduzu nahiko ardura.
Ez kezkatu diruagatik.
Epetan ordaintzeko erreztasunak
ematen ditugu.
Profesionalak gara. Etorri, ikusi eta konparatu.

Doneztebeko sarreran
Rosa Seminario, 13
☎ 45 04 00
DONEZTEBE



SANZ GASOILA ETXERA

Deitu 450272 edo
450787 telefonoetara eta gasoila
zure etxera eramanez dizugu

BENTA-BERRI

LARRVAREN ETXEA

Ibardingoa Gaina • ☎ 948.63 07 08 • BERA

**EGUNERO
IREKIA
DUGU**

**BAITA LARUNBAT
ETA IGANDETAN ERE**

goizeko 9,30etatik
arratsaldeko 7ak arte

Larruzko arropak eta osagarriak
Goi mailako kalitatea eta
aukerarik zabalena
hementxe bertan

Galtzak	20.000 - 25.000 Ptatan.
Txaketak eta Berokiak	30.000 - 75.000 Ptatan.
Boltsak	2.500 - 12.500 Ptatan.
Bidai-boltsak	5.000 - 6.000 Ptatan.
Gerrikoak	1.500 - 3.000 Ptatan.
Karterak	500 - 6.000 Ptatan.
Eskularruak	2.500 - 5.000 Ptatan.



SAMPI ARAGON

Leitzako errepidea
☎ 450354 / 450759
DONEZTEBE

Grua zerbitzua 24 ordutan

Garai berriak
Modelo berriak.

TXAPA eta PINTURA
MEKANIKA
ELEKTRIZIDADEA
GARBITZAILE-AUTOMATIKOA

